



# HISTORIA ARLOKO EUSKAL CURRICULUMAREN KRITIKA<sup>1</sup>

Jurgi Kintana Goiriena  
(Historian lizentziatua eta UEUko historia saileko kidea)

## Sarrera

Curriculumak, hezkuntza arloan, erreferentzia egiten dio ikasketen ibilbidean zehar ikasleek bereganatu behar dituzten eduki, balio eta gaitasunei. Beraz, ikasketen mamia definitzen duen programa edo egitaraua litzateke curriculumak. Eta euskal curriculumak, ikasketetako egitarauen euskal edukia edo euskal dimentsioa. Euskal dimentsio horrek hainbat irakurketa ditu.

Artikulu honetan, historiari dagokionez, euskal dimentsio horren inguruko gogoeta bat egiten da, euskal subjektu historikoa definitzeko proposamen bat aurkeztuz (I. atala). Halaber euskal historiaren inguruan hezkuntza arloan dauden polemikak aztertzen dira, baita historiak eskolan izan beharreko funtzio eta transmititzeko moduez (kontzeptuak, prozedurak, jarrerak) iradokizunak aurkezten ere (II. atala). Ondoren historia arloko euskal curriculum kasu pare bat aztertzen da: lehenik EAEko hezkuntza sisteman eskaintzen den “Euskal Herriaren historia” ikasgaia (III. atala), eta ondoren Manex Goihenetxek *Euskal Curriculumak* liburuan egindako ekarpena (IV. atala). Amaitzeko artikulu honetako ondorioak hamalau puntutan laburbildu dira (V. atala).

## I. Euskal subjektu historikora hurbilketa

### I. 1. Euskal subjektua hizkuntzaren konbentziotik definituz

Hasteko euskal curriculumak historia arloan zer izan daitekeen definitzen saiatuko naiz. Historian funtsezkoa izaten da subjektua definitzea. Eta euskal curriculumak *euskal* subjektu bati egiten dio erreferentzia. Zer da *euskal* hori? Ez noa erantzun erabatekorik bilatzera, ez baitut uste hitz horrek (ez beste ezeinek) esanahi esentzial eta definitiborik duenik. Dударik gabe pertsona bakoitzak euskal subjektuaren inguruko bere pertzepzio partikularra izango du, baina halako ikuspegi pertsonalek ez dute denontzat balio. Beraz erantzun zabalagoak behar dira. Posible da euskal subjektua ideologia batetik edo bestetik abiatuz definitzea (euskal nazio proiektuari lotuta ala espainiar/frantses nazioen baitako eskualde gisa ulertuz); defini daiteke ere egungo errealitate instituzional batetik abiatuz (adibidez EAERekin erlazioan ala Ipar Euskal Herriari atxikita); errepara dakiok ez halaber gaztelaniaz *vasco* hitzak eta frantsesez *basque* eleak duten esangurari; edota nazioarte mailan euskal subjektuaren inguruan egon daitekeen kontsentsuari.

Aukera horiek bezain zilegia da norbere hizkuntzatik abiatuz definitzea euskal subjektua. Azken finean euskal subjektuaren inguruko definizio propio bat gura bada zer egokiagorik abiapuntua hizkuntza propioan kokatzea baino. Beraz euskarazko definizio konbentzional bat erabiliko dut, hots, gure hizkuntzaren eta hiztunen usadioan eta egungo erabileran ohiko xamarra den esangura bat. Horretarako hiztegi bat kontsultatuz (zehazki Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa, baina beste edozeinek antzeko emaitza emango luke), honako definizioa aurki daiteke:

---

<sup>1</sup> Artikulu hau aurrenekoz *Kondaira* aldizkari elektronikoan argitaratu zen ([www.kondaira.com](http://www.kondaira.com), 2004, 4. zenb). Zuzenketa eta gehikuntza gutxi batzuekin ematen da hemen.

*Euskal*: (Euskara izenak hitz-elkarteetan hartzen duen forma) Hitz-elkarte baten lehen osagarri gisa, euskarari, euskaldunei edo Euskal Herriari dagokionaren adierazlea. [...]

Beraz euskal subjektuak *euskarari*, *euskaldunei* eta *Euskal Herriari* egiten die erreferentzia. Hortaz euskal historiak hiru elementu horiek hartu beharko ditu aintzat. Elkarri lotuta daude hirurak, baina ez dira hertsiki elkartrukagarriak. Izan ere, posible da hiru horietako bakarra hartzea kontuan besteak ahaztuz. Adibidez, historia aztertzen ahal da soilik Euskal Herriaren lurraldetasun irizpidea segituz, eta aldiz euskararen gorabehera jaramon berezirik egin gabe, edo munduan barreiatu diren euskaldunak ahaztuz. Edo, alderantziz, euskararen eta bere hitzunen historia osa daiteke, Euskal Herriko gainerako giza taldeak aipatu gabe. Beraz, *euskal* dimentsioa bere osotasunean hartu nahi bada, *Euskal Herria*, *euskara* eta *euskaldunak*, hirurak bildu beharko dira.

Uste izanik ezen *euskara* eta *euskaldun* kontzeptuek ez dutela beste misteriorik ez noa horien definiziorik ematera. Beraz beren adiera arruntean erabiliko ditut. Dudaren bat inon egotekotan *Euskal Herria* izenaren inguruan egon liteke akaso. Auzi honetan, ostera ere, izen honek hizkuntzan duen ohiko erabilerari segituko natzaio; eta ohiko erabilera hori zein den argitzeko Euskaltzaindiak izen honen inguruan berriki plazaratu duen txostena argigarria da oso:

Aspaldiko mendeetatik hedatua izan da *Euskal Herria* izena, kultura ezaugarri aski jakinak dituen herrialdea adierazteko, politika eta administrazio mugen nahiz ezberdintasun historikoen gainetik erabilia. Izan hori *euskara* + *herri* hitzetatik sortua da, hots, ‘euskararen herria’.[...]

*Euskal Herria*-ren erabilera orokor honen lehen lekukoa dugu Joan Perez de Lazarraga arabarra (1564 inguru). Hirutan aurkitzen da haren eskuizkribuan *eusquel erria* [...]

Orobat ikusten dugu gure Herriaren izena Joanes Leizarragaren lanean. Lapurdiko apaiz higanot honek, 1571n argitaratu Testamentu Berriaren eta beste zenbait testuren itzultzaileak, honela zioen, irakurle guztiek aise ulertzeko moduko hizkera aurkitzeko zailtasunaz:

“...bat bederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco manerán cer differentiá eta diuersitatea den”. [...]

Pedro Axular idazle nafarrak ere darabil izen hori, 1643ko *Gero* aszetika liburuan. Irakurleari zuzenduriko hitzaurrean, gai berberaz mintzo delarik, honela dio:

“Badaquit halaber ecin heda naitequeyela euscarazco minçatce molde guztietara. Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euscal herrian, Naffarroa garayan, Naffarroa beheanean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian eta bertce anhitz leccutan”. [...]

*Euskal Herria* eskuarki erabili izan da, bestalde, ideologia eta pentsamolde alor guztietan. [...]

Gorago adierazi guztiaren argitan, Euskaltzaindiak, zazpi probintzia edo herrialdeen osotasuna adierazteko, *Euskal Herria* izenaren egokitasuna, zuzentasuna eta zehaztasuna berresten du, eta izen hori ez dela izate politiko administratibo konkretu baten baliokide. Aldi berean, gogorarazi nahi du mendez mendeko tradizio luzeari begirunea zor zaiola, eta inork eta ezerk ez du tradizio hori hausteko edo bere gogara aldatzeko eskubiderik.

Gauzak horrela direlarik, eta 2003ko uztailaren 18an Euskaltzaindiak, Donostian onarturiko adierazpenean oinarriturik, honako Araua plazaratzen du:

1. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoa batera izendatzeko erabil bedi *Euskal Herria* izena.

2. Idazkerari dagokionez, bi hitzetan eta biak letra larriz. [...]<sup>2</sup>

<sup>2</sup> Euskaltzaindiaren Abadiñon 2004ko uztailaren 23an onartutako araua. Orain in [www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/ProNor0139.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/ProNor0139.pdf)

Konturatu *Euskal Herria* izena mendez mendeko erabilera tradizionalan oinarritzen dela, baina, aldi berean, ortografia eta definizio zehatza gaur egun proposatu direla (adibidez behinolako *eusquel erria / euscal herria / Euskalerrria* gisako aldaki ugarien artean *Euskal Herria* forma hobetsiz; eta esanahi aldetik zazpi probintzien osotasunari dagokiola argituz, eta ez, demagun, herrialde horien zonalde euskaldunei soilik). Honelako konbentzioak normalak eta beharrezkoak dira hizkuntza guztietan<sup>3</sup>. Baina jakin egin behar da konbentzioak direla. Gauza bertsua gertatzen da historiarekin.

## I. 2. Euskal historiaren konbentzioa

Historia ez da zerbait iraganak berez, objektiboki, ekarri duena. Aitzitik, historia, iraganera so eginez, baina gaur egundik begiraturaz, berreraikitzen da. Honi buruz, galiziar historialari bik, artikulua interesgarri batean, zera idatzi zuten:

[...] es necesario recurrir al presente, tomado como horizonte que nos permita comprender el mundo, para poder plantear cualquier visión del pasado. No en vano decía B. Croce que "toda historia es historia contemporánea". No obstante, el hecho de que el mundo contemporáneo sea el horizonte a partir del cual elaboramos nuestras visiones del pasado, no debe querer decir que sólo haya que estudiar historia contemporánea. Si ello fuera así, la historia perdería su sentido, puesto que un presupuesto básico del conocimiento histórico es que el presente debe ser estudiado en función del pasado. Debe aspirarse a lograr una integración entre ambos [...]

La historia estudia los acontecimientos, sí, pero sólo algunos de ellos. La historia selecciona determinados acontecimientos y, partiendo de ellos, elabora relatos que poseen un determinado sentido. [...]<sup>4</sup>

Iragana jada ez da existitzen. Iraganetik egundaino iraun duten arrastoak dira geratzen zaizkigunak (agiri zaharrak, aztarna arkeologikoak...). Arrasto horiek, berez, ez dute ezer esaten. Horiek bilduz, irakurriz eta interpretaturaz gaur egun berreraikitzen da historia. Gainera iraganeko gertaerak kontaezinak direnez, eta haiek utzitako lekukoak ere hain direnez asko, ez da posible denak batera biltzea eta guztiaren berri ematea. Horregatik historialariek, iraganak laga dituen arrasto ugarien artean, bilaketa eta aukeraketa bat egin beharra dute; eta, ondoren, jasotako datuak modu ordenatu eta ulergarrian aurkeztu eta iruzkindu behar dituzte. Aurkezpen horretan, hain zuzen, datu sakabanatu eta beren artean lotura gabeak direnak, erlazionatu egin behar dira. Adibidez sekuentzia kronologiko baten arabera antola daitezke, edota datu desberdinen artean kausa-ondorioak seinatu. Hala, iraganeko arrastoak, beren gordinean logika eta esangurarik gabeak zirenak, historialariek zentzu eta ordena jakineko kontakizun bihurtzen dituzte. Era horretara osatzen da narrazio edo kontakizun historikoa. Eta selekzio eta aurkezpen irizpideen arabera, historia bat edo beste bat osatuko da. Beraz abiapuntuak izugarri baldintzatzen du emaitza. Horregatik da garrantzitsua ikergaia edo subjektua, guk gaur egunetik definitzen duguna, ondo zehaztea. Eta kontziente izatea gu izan garela definitu duguna, eta ez dela historia izan bere baitatik, berez, eman diguna.

Beraz euskal historia gure egungo ikuspegitik definitu dugun konbentzio bat izango da. Gure abiapuntuko erreferentzia konbentzionalak *euskara*, *euskaldunak* eta *Euskal Herria* baldin badira, horiek iraganera proiektatu eta ikusiko dugu ea haiei lotutako zein datu aurki daitekeen. Hortaz euskarari buruz han eta hemen dauden ikerketak, Arabako historiari buruzkoak, Baionako datuak, Erriberaren ingurukoak, Bizkaikoak, Tolosaldekoak, Uruguaira joandako euskaldunen gainekoak... hau da, hainbat eta hainbat historia desberdin, batzutan elkarrekin lotura nabarmena dutenak baina beste askotan ez, gure jakintzagai izango dira, hala erabaki dugulako aurretiaz.

---

<sup>3</sup> Adibide bakarra ipintzearen, gaztelaniaz ere, *España* hitza ez da beti egungo grafian idatzi (Erdi Aroko eta are Aro Modernoko hainbat dokumentutan *Hespaña*, *Espanna*, *Espanya* eta gisakoak aurki daitezke). Eta esangura aldetik, luzaz, iberiar penintsula osoa adierazten zuen (Portugal barne), egun, konbentzios, izen bereko estatuari aplikatzen zaion arren. Beraz, kasu honetan, *Euskal Herria* izenaren kasuan bezala, tradiziodun izen bat daukagu, nahiz ortografia eta adiera zehatza berriki finkatu.

<sup>4</sup> Cf. Bermejo – López Barja de Quiroga (2000).

Hori bera egiten da beste edozein subjektu historiko aztertzean, dela Frantziaren historia, Extremadurako eskualdearen historia, munduko emakumeen historia, New Delhiren historia, fabrika baten historia, etab. Kasu guztietan inportantea da kontziente izatea ikergaia edo subjektu historikoa ez dela berezkoa, baizik guk hautatua. Beraz ez daude subjektu batzuk “egiazki historikoak” direnak eta beste batzuk “artifizialak” edo “falsuak” (hortaz, inoiz halakoak entzuten badira ere, ez dauka zentzurik Espainiaren historia euskal historiari kontrajartzeak, bata berezkoa bailitzan eta bestea gezurrezkoa), guztiak ere konbentzioak dira. Konbentzio zilegiak, erantsi behar da. Izan ere, historia guztiak orainalditik egiten baldin badira gaurko ikuspegiak abiapuntutzat hartuz, egun dauden ikuspegi eta identitate guztiek dute eskubide berbera beren begirada propioa pausatzeko iraganean. Eta, konkretuki, gure jendartean, euskal identitatea presente baldin badago (eta hala dago), ikuspegi horrek beste edozein ikuspegi bezalaxe (espainiarrak, frantsesak eta tartean egon daitezkeen orotariko konbinaziok), eskubidea du bere ikuspuntutik historia lantzeko. Horrek, jakina, ez du esan gura edozein istoriok historia gisa balio duenik. Ikuspegi desberdinak beti egongo dira, baina iraganaren gaineko soa mitoz bete nahi ez bada, historialari zereginari dagozkion gutxieneko arauak bete beharko dira. Ludger Mees historialariak (2000) zerrendatu izan ditu arau horietako batzuk, ikuspegi aniztasuna eta historiaren manipulazioa bereiziz:

convendría admitir, [...] que, a lo mejor, lo que a primera vista nos puede parecer parcial o tergiversado, visto desde la perspectiva del otro lado pueda tener su plausibilidad. Este relativismo nos permitirá admitir diferentes interpretaciones de la historia, todas ellas parciales por definición e influenciadas por circunstancias políticas, y distinguir entre un gran número de interpretaciones posibles, a menudo contradictorias entre sí, de la historia, por una parte, y deformaciones de la historia, por otra. Estas deformaciones se producen en los casos en los que no se respetan las reglas de juego básicas y elementales para cada historiador desde los tiempos de Ranke; cuando, por ejemplo, el previo compromiso político del historiador llega a tal extremo de impedir que en el proceso de investigación y docencia sean tenidas en cuenta previas aportaciones historiográficas con resultados no concordantes con los suyos; cuando la negación del carácter selectivo y parcial de todo conocimiento se convierte en una barrera para el contraste de diferentes enfoques alternativos; cuando se transgreden las reglas de la lógica formal; [...], y, finalmente, la deformación de la historia se produce cuando el historiador no facilita al interesado la posibilidad de reconstruir y verificar los diferentes pasos de su investigación.

Horra beraz edozein historialarik, bere ikuspegia zeinahi delarik, segitu beharreko arauetako batzuk. Egon badago, historiografiaren orde, bestelako generoak baliatzerik iraganaren inguruko ikuspegiak aurkezteko (fikziozko literatura, mitologia...). Baina ez dira horiek hemen mintzagai ditugunak. Historia egin gura bada, euskal, aleman zein txinatar ikuspegitik izanda ere, diziplina honi dagozkion lan-tresna kritikoak errespetatuz egin beharko da. Era horretara, ikerketetan modu kritikoan sakonduz, ikuspegi desberdinen arteko hurbilketa lor daiteke. Zenbait auzitan, bereziki balorazioetan, akordioa ez da inoiz erabatekoa izango, baina erudizioz jardunez gero adostasun puntuak aurkituko dira, eta bakoitzaren lana besteekin homologagarria eta elkar aberasgarria izango da.

Puntu hau amaitzeko, eta euskal subjektura itzuliz, esan dut *euskara*, *euskaldunak* eta *Euskal Herria* izan beharko lirakeela abiapuntu. Horrek ez du esan nahi horiek modu hertsia batean ulertu behar direnik. Adibidez *euskaldun* hitzak printzipioz ‘euskaradun’ pertsonen egiten badie ere erreferentzia, hedaduraz zazpi probintzietako biztanle guztietara zabal daiteke (are arrazoi handiagoz non sarri ezinezkoa den iraganeko pertsonen hizkuntza zein zen jakitea, eta beraz zentzu gutxi luke irizpide linguistiko zurrun baten arabera mugatzeak ikergaia). Halaber, euskal lurraldetasun erreferentzia zazpi probintziak badira ere, ez da ahaztu behar iraganean mugak ez zirela beti berdinak izan eta beraz malgutasunez ulertu behar direla. Gainera, Joseba Agirreazkuenagak (2000: 165) aipatu izan duen bezala, kostaldeko euskaldunentzat “itsasotasunak lurraldetasunak adinako garrantzia” izan du. Azken finean Euskal Herria, munduko beste hainbat toki bezala, bai itsasoz zein lurrez, auzoko zein urruneko herrialdeekin harremanetan egon izan da, eta euskal historia ezin uler daiteke lotura horiek aipatu gabe. Nolanahi ere, abiapuntua (ez helmuga) hiru osagai horiek (euskara, euskaldunak eta Euskal Herria) izan beharko dute.

## II. Historiografiatik ikastetxera: Kontzeptuak, Prozedurak eta Jarrera

### II. 1. Euskal historiaren gaineko erreferentzia lanez

Euskal subjektu historikoaren inguruko gogoeta guztiok onak (edo txarrak) izan daitezke, baina edozein kasutan, bere hartan orokorrekiak dira hezkuntzan aplikatu ahal izateko. Euskal historia ikertzeko eta idazteko abiapuntu posible bat adierazten dute, baina ikasgelan marko teoriko abstraktuak barik egitarau konkretuak behar dira. Hortaz historialariei dagokie euskal historia aztertzea eta idaztea, eta ondoren, irakasleek, lan horietatik abiatuz, ikasgelarako egokitu eta moldaturiko programa eman ahalko dute.

Euskal historiaren inguruan makina bat sintesi lan aurki daitezke, nahiz guztiak ez aztertu eremu berbera, eta gutxi izan kontuan goian aipatu ditudan euskal subjektuaren hiru osagaiak. Esan beharra dago, gainera, orain arte ez dela idatzi, nolabait kanonikoa dei daitekeen euskal historia lanik: hau da, inolako duda eta eztabaidarik gabe, eredia markatu eta eskola sortu duen lan monumental bat, euskal historiaren epe desberdinak ikuspegi propioz antolatu dituen, eta are gutxiago jatorriz euskaraz idatzia izan dena.

Esan daiteke mota horretako lan monumentalak gehiago dagozkiola XIX. mendeko historiografiari, eta ikerketa zientifikoaren egungo ikuspegi aniztasunean ez duela zentzurik halako proiektu akademizista bat egiteak. Eta ezagun zait, bai, jada nahiko garaiz kanpoko delako behinoko historiografia nazional ofizialen gisako eredu bat finkatu nahi izatea, noiz eta espainiar edo frantses historiografiek (mundu osokoek bezalaxe) euren kanon zaharrak kritikatzeko dituztenean. Baina hala ere, kanon horiek, hainbat arlotan, ez diote baliagarri izateari uzten, bereziki kontuan izanik autokritikak badaude lehenago kanonak egon direlako delako, eta halaber kanon horiek egungo historialariei ere konbentzio erabilgarriak eskaintzen dizkietenean (adibidez epealdi historikoak mugatzeko orduan: Frantziako “II. Inperioa”, “III. Errepublika”, Espainiako “Independentzia gerra”, “Seiurteko Demokratikoa”, “Errestaurazioa”...). Euskal historiografia kanonikorik ez izateak historia lantzeko orduan askatasun handiagoa eman beharko luke, baina, sarritan, erreferentzia beharrez, espainiar eta frantses kanonak erabiltzera garamatza. Hortaz, euskal historia kanoniko bat sortzea, ez noski XIX. mendeko erara, baizik egungo zientzia historiografikoaren ekarpenak bilduz, oso baliagarria litzateke egun ere. Baina, esan bezala, inork ez du (ezin izan du?) halakorik lortu, gehienez ere gertuago edo urrunago geratu diren saioak proposatuz.

Artikulu honetan definitu dudan euskal ikuspegira gehien hurbiltzen diren eta arazo handirik gabe eskura daitezkeen sintesi lanen artean (zerrenda osoa izateko asmo gabe) hauek aipa daitezke: Joseba Agirreazkuenagak zuzenduriko *Gran Atlas Histórico de Euskal Herria* (Lur, Bilbo, 1995, 512 orr.; euskarazko itzulpena ere badago: *Euskal Herriko atlas historikoa*, Lur Entziklopedia Tematikoa, Bilbo, 1997), Antonio Riverak zuzenduriko *Euskal Herriaren historia* (Lur Entziklopedia Tematikoa, Bilbo, 1998, 439 orr.) eta Manex Goihenetxeren *Historie générale du Pays Basque* (Elkarlanean, Donostia, 1998-2003, 4 tomo; lehen tomoak gaztelaniazko itzulpenean ere aurki daitezke: *Historia general del País Vasco*, Ttartalo, Donostia, 1999tik). Lehen biak hainbat historialarik (bereziki EHUKoek) epe historiko desberdinen inguruan idatzitako artikuluz osaturiko obra kolektiboak dira, eta azkena Baionako unibertsitatean arituriko Manex Goihenetxe historialariak egina da. Beraz, guztiak ere historialari profesionalek idatziak dira eta espero zitezkeen bezalako kalitadedunak. Hortaz erreferentziatzko obrak dira, kontsultarako baliagarriak, nahiz, jakina, ez diguten euskal kanon definitiboak eskaintzen (ez dute lortzen guztiz euskal epekatze historiko propio bat ehuntzea, jatorriz bata ere ez dago euskaraz idatzia –ezta Riverarena ere–, euskarari ez diote beti –ene gustuko bederen– merezi duen arreta eskaintzen, eta zazpi probintziak aztertzen saiatu arren euren egileen Iparraldeko edo Hegoaldeko jatorria hein batez igarri egiten da azken emaitzan...). Nolanahi ere, abiapuntu gisa erabilgarriak dira.

Sintesi lanak, ordea, dauden onenak izanik ere, ez dute zuzenean irakaskuntzarako balio. Haietatik datuak atereaz eta egokituz eskolan emateko balio dezakeen egitaraua osatu behar da.

### II. 2. Kontzeptuetan inplizitu doazen balio nazionalak

Normalean hezkuntzako egitarauan (edozein ikasgairaren egitarauan) *kontzeptuzko*, *prozedurazko* eta *jarrerazko* edukiak bereizten dira. *Kontzeptuak* ikasi beharreko eduki edo datuei dagozkie, hots, historiako epealdi, ideia, gertaera eta pertsonaiak ikastea litzateke; *Prozedurek* ikasgai baten metodologiak, arloa lantzeko

trebetasunak, eta funtsean ikasten ikasteko teknikak irakasten dituzte (dokumentu historiko bat nola iruzkindu eta analizatu, nola antolatu diagrama batean historiako datuak...); eta azkenik *jarrerak* ikasgai batek, arlo akademikotik kanpo, “bizitarako”, transmititu behar dituen balioei egiten dio erreferentzia (historiak, adibidez, jarrera kritikoa bultza dezake, bizi dugun errealitatearen eta munduaren konplexutasunaz ohartzen lagun diezaguke, etab.). Beraz, historialariak liburuetan darabilen narrazio edo kontakizun moldeak, irakasleak eskolako narrazio edo kontakizun molde berezira “itzuli” behar du: *kontzeptu*, *prozedura* eta *jarrera* eskemara.

Eskema horretan, eta bereziki historia ikasgaiari aplikatzean, punturik polemikoena ikasgaiak transmititzen dituen jarrera edo balioei lotutakoa izan ohi da, nahiz sarritan, auzia, kontzeptuen edukiari buruzko eztabaida “akademiko” edo “zeintifiko” gisa aurkeztu gura den. Izan ere, egitarau ofizial batek seinala ditzakeen balio esplizituek gain, beti dago susmoa kontzeptuetako edukiek *de facto* ez ote duten beste balioen bat transmititzen. Konkretuki herrialde baten historia irakasteari dagokionez (eta berdin da euskal, espainiar zein frantses historia izan), normalean, gaur egun, beronen funtzioa justifikatzean, “bizi garen lekuko iragana ezagutzea”, “inguratzeko gaituen aniztasuna tolerantzia onartzea” eta gisako azalpen politikoki zuzenak aurkezten dira, baina azpitik pentsatu ohi da hitz goxo horien atzean ez ote den adoktrinamentu aberkoirako balio duen ikasgaia egongo. Izan ere, oso oraintsu arte, eskoletan irakatsirik historiaren helburua horixe izan da: ikasleen artean aberri batekiko identifikazio eta leialtasuna sortzea.<sup>5</sup> Adibidez, frankismo garaiko testu-liburuetan, inolako lotsarik gabe azaltzen zitzaizkien ikasleei historiarekin sustatu nahi zen jarrera aberkoi hori:

Alfonsito escucha con vivo interés e insaciable curiosidad la lección de Historia patria, el relato de las hazañas de sus reyes y conquistadores, de las virtudes de sus santos y los trabajos de sus sabios.

El corazón de Alfonsito late de noble orgullo al oír los nombres de Sagunto y de Numancia, de Covadonga, Las Navas y Lepanto; al ver la imagen de los forjadores del Imperio Español: los Reyes Católicos, Carlos I y Felipe II, y la de sus restauradores; Franco y José Antonio.

Henchido de sentimientos tan sublimes, piensa para sus adentros. “¡Qué dicha, ser español!”. Y toma la resolución de estudiar con ardor la Historia de España, de alabar y defender a la Patria, de amar y venerar la Bandera [...]<sup>6</sup>

Badirudi behinolako eskoletako historiaren eredu hori iltzatuta geratu dela askoren buruan (batzutan kritikatzeko, bestetan onartzeko). Eta maiz uste da ikastetxean Euskal Herriaren (edo Espainia/Frantziaren) historia irakaste hutsarekin ikasleak euskal (edo espainiar/frantses) nazionalista sutsu bihurtuko direla. Konkretuki eta euskal historiaren kasuari dagokionez, Espainiako Real Academia de la Historia-k aski sonatua izan zen salaketa egin zuen 2000. urtean:

A los centros de enseñanza media del País Vasco, asisten alumnos formados en las ikastolas, en las que la historia que se enseña es de contenido parcial y tendencioso, inspirado en ideas nacionalistas favorecedoras del racismo y de la exclusión de cuanto signifiquen lazos comunes. (10. orr.)

Ikusten denez, ustez irakasten den euskal historiak salaketa izugarri gogorak eragin ditu, gero horiek baieztatzeko frogarik eman ez bada ere<sup>7</sup>. Edozein kasutan susmoa hor geratzen da eta aldika-aldika antzeko kritikak entzuten dira. Gainera salaketa horiek erantzun mimetikoak eragin dituzte, espainiar/frantses curriculumek duten eraginari buruz. Historiaren inguruko halako larritasunak, nire ustez, okerrak dira, bi arrazoigatik.

Batetik hezkuntzak ikasleen ideologia moldatzeko duen gaitasuna gainbaloratu egiten da. Zeren, hezkuntzak halako helburu adoktrinatzailerak izan dituen ere (adibidez eta oso nabarmen Francoren Espainian) arrakasta aski mugatua izan du (bestela egun ez legoke espainiar estatuan euskal, katalan edo galiziar nazionalistarik, baizik herritar oro espainolista, katoliko eta inperialista litzateke, akaso hein batez halaxe dena,

<sup>5</sup> Historiaren funtzio nazionalizatzaile horren analisi kritiko on bat aurki daiteke in Pérez Garzón eta al. (2000).

<sup>6</sup> *Historia de España, Primer grado*, Edelvives, Zaragoza, 1958, 7. orr.

<sup>7</sup> Aitzitik Espainiako Real Academia de la Historiaren salaketei ikerketa serio batekin erantzun zion Kataluniako Bofill fundazioak, argiro frogatuz Euskal Herrian, Katalunian eta Galizian erabiltzen ziren testu liburuetan ez zela bat ere nabarmena adoktrinamendu nazionalista (cf. Segura, 2001).

baina ez ziurrenik ikasitako historiagatik soilik). Irudipena dut historiak transmiti ditzakeen balio nazionalekin larritzen diren gehienak behinola ikasle on xamarrak izandako eta lanbide liberaletan segitzen duten pertsonak direla (“Sagunto y Numancia, Isabel y Fernando” ahaztu ez dituztenak eta egun hori berori edo horren kontra “Orreaga eta Arrigorriaga, Antso IIIa eta Sabino Arana” irakastea erabakigarriak izan daitezkeela uste dutenak). Baina haien belaunaldiko ikaskide guztiak aztertuz gero, zenbat oroitzen ote dira egun eskolako historia haietaz? Gainera, jende larrituok ahantzi egiten dute egun hezkuntzaren eragina inoiz baino txikiagoa dela ikasleengan: eskola orduetan derrigortuta eta arreta urriz entzuten duten irakaslearen ahotsa (saiatuena izanik ere) edo irakurtzen duten testuliburuak dioena (historia arras ongi azaldu arren) edo are klasean ikus dezaketean bideo historiko edo gisako material didaktikoaren eragina ezin pareka daiteke ikasleek beren aisialdian interes biziz segitzen dituzten kirolekin, dakusatzaten telebista programen pisuarekin, propaganda iragarki bortitzekin, DVDan ikus dezakeen akziozko filmarekin edo bideojoko koloretsu eta soinuarekin, eta horiek guztiek transmititzen dizkieten balio eta edukiekin. Halaber ahantzi egiten da, maiz, irakasleek ikasgela masifikatueta aritu behar dutela, egitarau izugarri zabalak bete behar dituztela presaka, eta hortaz ez dela modurik egoten gaietan sakontzeko eta are gutxiago ikasleek gai horien edukia xurgatzen dutela bermatzeko (ikasle askok, akaso gehienek, azterketarako ikasten baitute eta ondoren gehiena ahantzi). Honi, jakina, erantzun dakioke, asmoak gauzatzeko orduan arazoak egon daitezkeela, baina egitarauen helburu ideologikoa nabaria dela. Eta hor bigarren arrazoirra goaz.

Izan ere, egun Euskal Herrian eragina duten hezkuntza sistematarik batek ere ez du ofizialki asmo nazional adoktrinatzailerik adierazten helburu gisa (ez EAEkoak, ez Nafarroakoak, ez espainolak, ez frantsesak). Hortaz, mesfidantza susmo batean oinarritzen da, hots, helburu nazionalizatzaileak jarreraren inguruko adierazpenetan barik “atzetik” sartzen direla, kontzeptuen atalean. Eta egia da jarrerak eta balioak (ez soilik historia ikasgaien baizik beste edozeinetan ere), zuzeneko enuntziatu formaletan baino gehiago, eduki konkretuetan joan ohi direla inplizitu. Eta inplizitu joate hau ez da izaten derrigor ezkutatu nahi baten ondorio, baizik, jakinda edo jakin gabe, pertsonak proposatzen ditugun diskurtso guztiek balio ideologiko eta moral batzuk izatearen ondorio, ez baitago neutrala den ezer. Kontua beraz, transmititzen diren balio horiez kontziente izatea da, behin balio horiek zein diren jakinik horiek onartu eta argi aitortzeko, ala, bestela, balio desegokiak iritiz gero, zuzentzeko. Hau hezkuntzan ezinbestekoa da, haurrei eman nahi zaien hezkuntza eta orientabidea ezagutu beharra baitago.

Zer gertatzen da, hortaz, historiarekin? Hasteko esan behar da iraganak, berez, ez duela inolako baliorik transmititzen. Jada igaro diren gertaera kopuru infinituek osatzen dute iragana, norabide eta helburu argirik gabe. Iragana, osotasunean hartuta, hain denez zabala, ulertezina egingo litzaiguke. Horregatik, jada esan denez, amaiera gabeko putzu horretatik historialariek datu konkretu batzuk aukeratu eta antolatzen dituzte, ulertzeko moduko kontakizun batean ehunduz. Historia, beraz, modu askotara idatz daiteke, eta historialariaren ideologiak izugarri baldintzatuko du emaitza. Hala bada, historialariaren ikuspegiaren arabera, iraganeko gertaeren interpretazio oso desberdinak sor daitezke, batzuk ideologikoki oso markatuak beste batzuk ez hainbeste. Adibidez, batzuek Espainiaren historiari ondorioztatuko dute Espainia beti egon dela batuta, oso katolikoa izan dela, inperiala etab. Beste batzuk batuta egon dela, baina esentzialki liberala izan dela, aurrerakoia, etab. Beste batzuk Espainia beti egon dela zatituta, esentzialki plurala izan dela, etab. Eta hola pertsona adina irakurketa egin daitezke. Baina, irakurketa pertsonalak egiteaz gain posible da ere norbere kezka ideologikoak historiaren bidez ebazteko tentazioa saihestea. Hala egiten duenak ikusiko du Espainiaren (edo beste edozein herrialderen) historian denetarik aurki daitezkeela: nazio aferan norbere ikuspegiarekin bat datorrena (ikuspegi hori edozein izanik ere) zein kontrakoa, eta baita –gehiena, egia esan– nazio kontuekin inolako lotura gabea, eta oro har egungo debate ideologiko eta politikoetatik aldentzen den historia.

Hain zuzen historialariak ahalegina egin behar du iraganeko gertaerek jazo ziren garaian izan zuten logikan ulertzen, eta ondoren, hala nahi badu, bere iritzien arabera epaitzen, baina beti ere argi bereiztuz zeintzuk diren bere iritzia eta zeintzuk iraganeko gertaerak. Sekula egin behar ez dena egungo ikuspegiak historiaren emaitza “natural” gisa aurkeztea da, gure proiektu edo ideologiak iraganaren berme objektiboa baleuka bezala. Azken finean ustez “gure alde” jokatzeko duten historiako aldiak, gertaerak edo pertsoniak geuk aukeratuak dira, eta horiek onak edo txarrak izan ziren ez digu iraganak esaten baizik geuk erabakitzen digu gure egungo ideien arabera. Eta, beraz, ideologia, iritzi eta balio pertsonalen arabera iraganeko gertaera batzuk edo besteak nabarmendu daitezke, eta gustuko ez ditugunak ahaztu edo erlatibizatu. Ondorioz argi izan behar da abiapuntuko gure balioak zeintzuk diren eta kontziente izan balio horiek iraganean aurkitzen baditugu ez dela izango berez

historiak hori esaten digulako, edo gure jarrerak historiaren ondorio naturala direlako, baizik guk aurretiaz bilatu ditugulako. Eta honekin, I.2. puntuko gaira itzultzen gara.

Zein balio transmititu behar ditu euskal historiak? Berehala aipatuko dudana “euskal” balioaren kontua albo batera utzita, historiak bere baitan printzipioz ez luke ezein balio transmititu behar. Izan ere balioen bat *a priori* seinalatzeak historia *ad demonstrandum* lantzea dakar. Ideala iraganeko barne logikak bilatzen saiatzea litzateke, historiari berari hitz egiten uztea. Baina, jakina, halako planteamenduak ideologia inplizituak ez ekiditeaz gain (hala erakusten du XIX. mendeko historialari positibisten kasuak: beren neutraltasun asmo idealistak gorabehera ezin izan baitzuten ideologiaz blaitzea saihestu), onenean ere erudiziozko lan monumentalak emango litzuke, inondik ere hezkuntza ertainetan ezin irakatsizkoak. Gaia mugatu beharra derrigorra da, eta mugaketa egiteko balio batzuen arabera egin beharko da ezinbestean. Balio horiek izan litezke printzipioz akademikoak. Hau da, historiaren luze-zabal osoa ezin irakats daitekeenez, hedadura hori sintetizatzen ahalguztatu araberakoa, aldi eta gai guztiak, gutxi-asko, presente egon daitezkeen saiatuz. Jakina, irizpide akademiko horretan ere balioak egongo dira, ezin baita “objektiboki” erabaki garai bakoitzetik zer den garrantzitsua. Batzuk historia politiko-militarrari eman diezaiokete garrantzia, beste batzuk ekonomiko-sozialari, edo kulturalari, etab. Ez dut hortik sakonduko hezkuntzak historia ikasgaiaren bidez landu nahi dituen balioak ideia oso konkretuei baitaude lotuta (tolerantzia, askatasuna...) eta ez hainbeste iragan aztertzeke ikuspegi historiografiko desberdinei (nahiz egia esan ikuspegi historiografiko bat ala beste hautatzeak izaten duen lotura balio konkretu batzuk ala besteak lehenestearekin). Hortaz, akademikoki gutxi-asko lor daitezkeen historiaren sintesiaren gainean bigarren hautaketa bat egin beharko da balio konkretuagoen arabera.<sup>8</sup>

Nola txertatu balio horiek egitarauan, historiaren interpretazio utilitarista (eta beraz distorsionatu) bat egin gabe? Egokiena historiaren deskribapena (ahaleginez objektiboa) egitea litzateke, eta, ondoren, gaiak aukerak ematen dituenean, horren gaineko balorazioa egitea. Beti ere gaia eta balorazioa bereiztuz. Adibidez iraganeko gertaera batzuk izan litezke “objektiboki” guk bultzatu nahi ditugun balioen kontrakoak (adibidez inkisizioaren historiak, edo Erdi Aroko erregeen aginte moduak, ez ditu berez tolerantzia edo demokrazia ereduak irakasten). Baina historia horiek erlatibizatu edo ezkutatu ordez, bere hartan azaldu beharko lirateke, ondoren gai horiek eskaintzen duten aukera baliatuz klasean debate bat irekitzeko, ikasleei beren iritzia galdetzeko eta gure konklusioak bilatzeko. Hau da, ez esanez “iraganak balio hau irakasten digu, eta balio hau betidanik edo oso aspalditik topatzen dugu historian, beraz guri ere balio iraunkor horiek segitzea dagokigu”, baizik “balio hau, ikusten denez, ez da beti egon, historiako une jakin batean sortu zen, edo garai batean guztiz jazarria zegoen, edo oso partzialki onartua; alderatu egoera hori egungoarekin: gaur estimatzen al dugu balio hori? Zaindu beharko al genuke?...” Historia ez dadila izan gure balioen kalko eta berme bat, baizik historia erabil dezagun gure balioen inguruan gogoeta egiteko, iraganeko eta egungo balioak alderatzeko, lehengoa zein oraingoa kuestionatzeko eta azkenik bakoitzak bere ondorioak ateratzeko. Beraz, uztartzeko aukera egon arren, beti bereizi beharko genituzke historiak dioena eta guk gaia baliatuz pausatzen ditugun debateak. Zentzu horretan historiak (adibidez historia unibertsalak) berez ez luke inolako baliorik emango, gero balioen gainean hausnartzeko aukera eskaini arren.

### II. 3. Euskal balioak historia curriculumean

Printzipioz gauza bera esan beharko litzateke edozein herrialderen historiari buruz (euskal historia, frantses historia, hegoafrikar historia...). Mundu osoaren historiak bezala, mundu horren zati diren herrialde partikularren historiak aukera eman dezakete tolerantzia, askatasuna, elkartasuna eta gisako balioen inguruan gogoeta egiteko. Eta izatez egitarau ofizialetan, jarreraren atalean, halako balioak aipatu ohi dira ikasgaiak sustatu behar dituen artean. Are hezkuntza sail eta ministerioen dekretuetan aipatzen diren jarrera ia bakarrak halako balio generikoei dagozkie. Balegoke balio orokor horietaz zer esanik, baina ez naiz auzi horretan sartuko. Izan ere, polemika handiena eragiten dutenak ez dira balio horiek izaten baizik herrialde konkretuen historiari lotuta ustez transmititzen diren balio nazional(ist)ek. Zeren kontua da herrialde baten historia lantzeak, historia unibertsalak baino gehiago, inplizitu dakartzala naziotasun ideari lotutako balioak.

Hasteko herrialdeen historiak esparru geografiko bat markatzen dute, eta normalean ezaugarri kultural jakin batzuk dituzten giza taldeak lehenesten dituzte kontakizun historikoan. Adibidez Espainiaren Erdi Aroko

<sup>8</sup> Hezkuntzan erabiltzeko historia edukiak hautatzearen inguruan, besteak beste, Merchan (1994) kontsulta daiteke.



historia kontatzean, biztanle kristauak (bereziki gaztelauak) protagonistak gisa agertu ohi dira eta musulman edo juduei bigarren mailako papera ematen zaie (etsai gisa ageri ez direnean). Horrek, noski, balio inplizitu batzuk islatzen ditu, alegia, hobe dela kristau izatea musulman izatea baino, hobe gaztelaniaz mintzatzea arabieraz (edo euskaraz) baino, eta dudarik gabe Espainiaren izatea lotuago dagoela Gaztelarekin eta kristautasunarekin ezen ez arrotz gisa ageri den Islamarekin. Iraganak, jakina, ez du berez halako ezer esaten. Izatez egungo Espainiaren eta Erdi Arokoaren artean identifikazioak bilatzea historiaren abusuzko irakurketa bat egitea da. Izan ere garai hartan Espainia ez zen nazio bat, Iberiar penintsula osoa izendatzeko erabiltzen zen izen geografiko soil baina (egun Eskandinavia edo Anatolia izan daitezkeen bezala: izena dutelako ez dugu deduzitzen eskandinaviar edo anatoliar nazioak daudenik). Eta Erdi Aroan ez zegoen espainolik, ez bada zentzu geografiko soil batean (egun eskandinaviarrak aipa ditzakegun bezala, horregatik lurralde hartan bizi diren norvegiar, suediar, finlandiar edo laponiarrek gauza bera direla pentsatu gabe). “Espainiaren historia” historiaurrean hasi eta egundaino luzatzeak, gainera, jarraitasun itxura eman dezake, Espainia betidanik existitzen den zerbait balitz bezala. Eta hemen osterara ere gogorazi behar da Espainiaren historia egundik eraiki dela, ez dela ezer berezkoa, baizik konbentzio bat. Eta horixe bera gertatzen da euskal historiarekin.

Zer esan “euskal” historiak transmiti ditzakeen balioez? Euskal Herria, euskaldunak eta euskara izango dira, abiapuntuan hala definitu ditugulako, euskal historiak transmitituko dituen balioak. Ze zentzutuan hori? Izan liteke modu esentzialista batean, hots, ulertzera emanez zazpi probintzien lurraldetasuna betidaniko marko territorial bat dela (“berezkoa”, “naturala”), eta halaber euskara betidanik egon dela hor, etab. Hori gertatuko litzateke kontziente ez bagina edota argi aitortuko ez bagenu geuk definitu ditugula *Euskal Herri*, *euskara* eta *euskaldun* subjektuak abiapuntuan, eta horren ordean, inplizituki agertuko bagenu iraganak berez emanak balira legetxe.

Aldiz gauzak diren bezala esanez, hau da, esplizituki adieraziz euskal historia egungo ikuspegitik definitu dugula, eta definizio hori egiteko konbentzio batzuk erabili ditugula (konkretuki “euskal” hitzak hizkuntzaren ohiko erabilera inplikatzeko dituen *euskara*, *euskaldun* eta *Euskal Herri* subjektuak), historiaren erabilera inplizituak ekidin ditzakegu.

Zertan justifikatzen da euskal historia eraikitze hori? Ez ezer bere baitakoa eta berezkoa izatean, baizik egungo jendartean existitzen diren ikuspegi, errealitate linguistiko eta identitate batzuen onarpenean. Konkretuki gure jendartean (hots, Euskal Herrian) euskaratik abiatuz pentsa daitezkeen identitate eta mundu bat egotearen eta errespetatu behar diren konbikzioan (ez da dagoen ikuspegi bakarra, baina bai dagoenetako bat, eta ez marjinala baizik aintzat hartzeko adina pisu duena). Beraz errealitate sozial hori aintzat hartu nahi delako landuko litzateke euskal historia. Eta euskal historia lantzean jendartean dagoen eskari sozial bati erantzuna emango litzaiok, jakin-mina modu akademiko eta ahalik eta zientifikoenean asez.

Gaztelaniaz esaera da *se ignora lo que se desprecia y se desprecia lo que se ignora*, eta horri buelta emanez pentsa liteke ezagutzen dena estimatu egiten dela eta estimatzen dena ezagutzeko joera dagoela. Hortaz ezin uka euskal historia (eta berdin euskal geografia, literatura, ekonomia, zuzenbidea...) ikasteak atxikimendu bat eragin dezakeela historia horrek aztertzen dituen euskararekiko, euskaldun biztanleriarekiko eta Euskal Herriarekiko. Atxikimendu hori bultzatzea akaso euskal nazionalismoa sustatzearekin berdinduko dute batzuk, baina ez da hori nire ustea: Euskal Herria edo euskara estimatzeak ez du behartzen berau naziotzat hartzea edo independentzia nahi izatera, ezta, demagun, euskara lehenesteko politika gura izatera. Kontrakoa esateak inplikatzeko luke gure jendartean “normaltzat” hartu beharko litzatekeela euskara ez estimatzea (eta hartaz ideiarik ez izatea), Euskal Herria lurralde gisa arrotz moduan hartzea, etab. Eta hori, gutxienez hizkuntzari dagokionean absurdua da, kontuan izanik euskara jendarteak estimatzen duen ondarea izateaz gain legalki ere hala dela, Hego Euskal Herrian behintzat koofiziala baita, hezkuntzan irakasten baita, eta Espainiako Konstituzioak berak balio gisa aitortzen baitu (3. 3. art. “La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección”).

Hizkuntzaren onospena berau mintzatzen den lurralde eremuaren ezagutzara hedatzea ere ez dirudi eskari handiegia denik (inork imajinatzen al du gaztelaniaren berri ematean Hego Amerika aipatu gabe uztea?). Hortaz, hezkuntzako arduradunek konplexurik gabe onartu eta aitortu beharko lukete historiaren euskal dimentsioak bultzatzen dituen balioen artean (historia ikerketei lotutako beste balio orokorrez gain) euskara, euskaldungoa eta Euskal Herriaren ezagutza sustatzea ere badagoela, horrek ez duelarik inplikatzeko adoktrinamendu nazionalik,

ezta beste ezein ikuspegiaren bazterketa eskusibistarik ere, baizik soil-soilik hizkuntzatik abiatuz definituriko mundu baten aintzat hartzea.

Izan ere, aipatu denez, euskara estima liteke horregatik norberak bere burua frantses edo espainoltzat edukiz (izatez historian zehar eta oraintsura arte aski ohikoa izan da hori: Garibai, Larramendi, Garat anaiak, karlistak...), eta Euskal Herria uler liteke marko kultural gisa inplikazio politiko barik (Espainiak eta gaztelaniaz mintzo diren Hego Amerikako herrialdeek Hispanitate izeneko erkidego kulturala osa dezaketen bezala, horregatik denek estatu bakarrean biltzeko asmorik izan gabe). Euskal historia ikasgai behintzat nik ez dut proposatzen balio nazionalistatik sartzera (ezein zentzutan), baizik soilik *euskal* izena merezi duen historia curriculuma lantzea, *euskal* hitzaren esangura konbentzionala, minimoetan behintzat, errespetatuz. Horretarako ezin dira *euskaldunak*, *Euskal Herria* eta *euskara* ezaugarriak baino gutxiago aintzat hartu. Baina ezta gehiago ere: euskal historia euskal jendarte osoko ikasleei zuzendu nahi bazaie honen baitan dauden orotariko sentiberatasunak errespetatu beharko ditu. Beraz kontatzeko erak ahalik eta zabalena izan beharko du, ideologia edo ikuspegi jakin batekin lerrotatu gabe.

Zentzu horretan euskal ikuspegiak, bere hiru elementuekin, ez du inondik abiapuntu hertsirik markatzen: ikergai izan behar duen lurraldea, kontuan hartu beharreko giza komunitatea eta presente eduki beharreko hizkuntza seinatuzera mugatzen da, gainerakoan orientabide gehiago markatu gabe. Hortaz minimoekin definituriko euskal historia horren inguruan interpretazio eta irakurketa guztiak posible dira. Eskolarako historiak irekitasun hori errespetatu beharko luke.

Komenientzia sozialagatik adina arrazoi akademikoengatik neutraltasun ideologikoa mantentzen saiatzea onuragarria da, hasteko argi utziz gure euskal subjektu historiografikoaren izaera konbentzionala. Hola Euskal Herria egundik definitzen dugula esatean erantsi beharko litzateke zazpi probintziak ez direla betidanikoak, mugak aldakorak izan dituztela historian zehar, eta posible zela beste muga batzuk izatea egun. Halaber argitu behar da zazpi probintzia horiek ez dutela bloke konpaktu bat osatzen baizik beren arteko harremanak aldakorak eta asimetrikoak izan direla. Adibidez, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak beren azken mendeotako ibilbide historikoan beste euskal herrialdeekin baino lotura juridiko-politiko handiagoa izan dute, eta antzekoa gertatzen da Lapurdia Nafarroa Behere eta Zuberoaren artean, Nafarroa Garaia bakanago ageri delarik. Dena den kontuz ibili behar da zazpi probintzien inguruko bloke zurrun irudia saihestu guran ez igarotzeko “*Baskongada* / Nafarroa / Iparralde” partiketa hirukoitz halaber zurrunera<sup>9</sup>, historiak ez baitu bloke erabatekorik inoiz seinatzen, hainbat arlotan harreman “transbertsalak” aurki daitezkeelarik (adibidez Aro Modernoan arrantza auzietan Bizkaiak, Gipuzkoak eta Lapurdik oso harreman estuak izan zituzten beren artean, beste ezein probintziarekin baino estuagoak). Eta ezin ahaztu Euskal Herria ez diren lurraldeekin izandako loturak ere (Zuberoak Biarnorekin, Arabak Errioxarekin...).

Orobat *Euskal Herria* izena zazpi probintziekin identifikatzea ere ez dela betidanikoa argitu beharko litzateke, baizik azken hiruzpalau mendeotan finkatuz joan dena, *Euskal Herria* izenak, jatorriz euskararen lurraldea esan nahi baitzuen. Hortaz Araba edo Nafarroaren erdal zatiak antzina ez ziren Euskal Herrizat hartuko, eta bai ziurrenik Erdi Aroan Biarnon edo Errioxan zeuden zonalde euskaldunak. Ondorioz “Euskal Herria Antzinatean” esatean (“Frantzia/Espainia Antzinatean” esatean bezala), egungo marko territorial bat iraganera proiektatzen ari garela zehaztu behar da (eta konbentzio gisa praktikoa izan liteke), baina argi utziz erromatar garaian ez zegoela Euskal Herririk egungo zentzuan. Eta jakina, zazpi probintzien erreferentzia baliatzeaz gain Euskal Herri hitzaren jatorrizko esangura ere profita dezakegu behinolako euskararen eremuak ikusteko (Antzinateko Akitania, Erdi Aroko Errioxa eta Burgos aldea...), nahiz ez dakigun garai hartan hala deitzen

---

<sup>9</sup> Egundik Euskal Herriaren dauden hiru eremu politiko-administratiboen ereduak (EAE, Nafarroa, Iparralde) lehenago historiaren arlo batzuetan suma daitekeen joera hirukoitz hori reifikatuzera daramatza historialari batzuk, ahaztuz egun bezain markatua sekula ez dela izan tripartizio hori. Hego Euskal Herrira mugatuz Araba, Bizkai eta Gipuzkoa artean, adibidez, iraganeko antzekotasun eta harreman instituzional handixeagoak zeuden Nafarroa Garaiarekin baino, bai, baina hiru probintzien arteko lotura ez zen inondik egungoa bezain sendoa, eta halaber Nafarroa Garaia urrunketa beste probintziekin sekula ez da egun bezain markatua izan. Beraz kontu eduki behar da, bestela oso erraz aditzera eman daiteke EAE eta Nafarroa egun bi autonomi erkidego badira sakoneko arrazoi historikoengatik dela, ene ustez, aurrekariak aurrekari, askoz gertukoagoa den espainiar Trantsizioa egin zen moduak finkatu zuenean ekidinezina ez zen bereizketa hori.

zitzaion. Beraz egungo Euskal Herri ideiatik abiatuz lurraldetasuna malgutasunez eta dogmatismo gabe aplikatu daiteke, une bakoitzean ematen diogun zentzua argituz.

Euskararen jarraitasun historikoaren inguruan ere ñabardurak egin beharko lirateke, hau ere ez baita maiz ulertarazten den bezain ezaugarri historiko iraunkor eta aldaezina. Hasteko, lurraldetasuna bezala, egundik erabaki dugu beraz historian bilatzea, eta izatez nahasgarria da behinolako mintzaira izen horrekin identifikatzea: hola egia da euskararen jatorriak Pirinioen mendebaldeko inguruan kokatu direla gutxienez azken hiru mila urteotan; baina, aldi berean, zehaztu beharra dago denbora horretan gure hizkuntza, munduko mintzaira guztiak bezala, etengabeko eboluzioan egon dela, eta horrek esan nahi du erromatar garaiko “euskara” egungo euskararekiko, gaztelania edo frantsesa latinarekiko bezain desberdina dela. Izatez adituek “aitzineuskara” deitzen diote behinolako hizkuntza horri, homonimiak sor ditzakeen nahasteak ekiditeko txit egoki dena.

Bestalde arreta euskararen jartzea ez da interpretatu behar euskararen gaineko datu eskusiboak emate moduan. Horrek, batetik, Euskal Herrian historikoki egon den aniztasun linguistikoa ezkutatu luke, eta, bestetik, euskara beraren egoera historikoa osotasunean ulertzea galaraziko liguke. Izan ere, euskararen alboan, gainean zein azpian, bere bilakaeran eraginez zein ia oharkabean igaroz, estatus desberdindun hainbat hizkuntza hitz egin izan dira (zeltar berbetak, latina, arabiera, nafar erromantzea, gaskoia, erromintxela, gaztelania...). Horiek guztiak beren baitan aipatzeko modukoak dira, eta aldi berean euskararekiko harremanean ere azter litezke (utzi dituzten mailegu hitzak ikusiz, euskararen garapen ofiziala mugatu ote duten ala ez aztertuz, etab.). Eta historiak berak baliorik emango ez badigu ere, gaiak parada ematen du eleaniztasunaren eta hizkuntzen arteko elkarbizitzaren inguruan hausnar egiteko.

Laburbilduz: ukaezina da euskal historia lantzeak euskal balio batzuen transmisioa lekarkeela aldean. Konkretuki, eta euskal subjektu historikoa hemen egin den moduan definituz gero, horren irakaskuntzak euskararekiko, Euskal Herriarekiko eta euskaldunekiko gertutasuna eta estimua sustatuko lituzke. Eta ez dago zertan ukatu helburu hori, azken finean jendartearen, atxikimendu nazional kontrajarrien gaintik (edo azpitik), euskara babestu eta bultzatu beharreko ondare komun gisa aldarrikatzen da. Zentzu horretan *euskaldungoa* edo *Euskal Herria* balio gisa onartzea ere euskara ondare gisa hartzeri lotuta legoke, hizkuntza errespetatzearen parte baita mintzaira horretatik deribatzen den unibertso kontzeptuala errespetatzea (berezi mintzaira horren lurralde esparruari edo hiztunei dagokionean). Aldiz honek guztiak ez du inplikazio nazionalik zertan izan, hizkuntza eta hari lotutako kontzeptu soilak baitira abiapuntu, ez leialtasun politikoak (beti ere euskara ondare komun gisa onartzen deno, ezen leialtasun nazional jakin batek euskara baztertu beharra eskatzen badu argi dago hemen proposatzen dena bateraezina izango dela proiektu nazional baztertzailer horrekin). Bestalde, euskara, Euskal Herria eta euskaldungoa balio gisa sustatzea proposatu arren ez dira historiaren bidez esentzializatuta aurkeztu nahi, baizik historia ikasgaiak haien izaera konbentzional eta aldakorraz ohartzeko balio dezake, izaera konplexu hori ulertzeak absolutismorik gabeko balio gisa estimatzen lagunduko dituelakoan. Zentzu horretan guztiz posible da euskal historia kritiko bat eraikitzea, gure egungo ikuspegiak abiapuntutzat hartuko dituen baina horregatik ez dena autokonplazentzian eroriko, baizik dogmatismorik gabe norbere ezagutzan sakonduko duena.

Euskal historiarekin bezala, espainiar, frantses edo beste edozein herrialderen historiarekin hau bera egingo balitz, hots, subjektu historikoaren zergatia eta nondikoa aurretiaz definitu eta konbentzionala dela argituko balitz, orduan seguru aski historiaren kriptobalio nazionalizatzaileen inguruko hainbat mesfidantza eta beldur uxatu ahalko lirateke. Eta hola, argiago ikusiko litzateke jada gaur egun ere *de facto* gertatzen dena ikasgai hauekin: identitate faktorea (euskal, espainiar edo frantses historia izatea) ez dela inondik ere ikasleek ikasgai hauekin gehien xurgatzen dutena. Zeren identitateak mugatu arren ikergaiaren esparrua, esparru hori aztertzean, ondo egiten bada, hain agertzen dira eduki desberdin asko (ekonomikoak, sozialak, kulturalak...) ezen azkenean beste mila daturen artean bat gehiago baino ez den izaten subjektu historikoarena. Hortaz, subjektu horren abiapuntuko balio argi aitortu eta mugatuz gero, ondoren azpitik sartzeko eta eduki akademikoetan inkontzienteki tartekatze arriskua saihestuko litzateke, bestelako edukietan lasai asko murgiltzea erraztuz.

## II. 4. Euskal historiaren kontzeptuak eta prozedurak

Balioen gaia ebatzitzat emanik (nahiz, jakina, nirea proposamen soil bat den, diskutigarria guztiz), kontzeptu eta prozeduren auzia aipatu behar da. Hala, demagun, argi finkatzen dela historiaren inguruan landu beharreko balioen afera (bai euskal balioena zein bestelakoena), orduan kontzeptuzko eduki konkretu batzuk

azaldu beharko dira. Kontzeptuek, gorago esan denaren arabera, aurretiaz azaldutako konbentzioetan izan beharko lukete abiapuntua, ondoren ahalik eta modurik aseptikoenean azaltzeko esparru horien baitan historian zehar jazo dena.

Oso zaila da euskal historian kontzeptuak edo mugarrak zeintzuk diren eta nola antolatu behar diren esatea. Irakaskuntzako mailen arabera modu batera edo bestera moldatu beharko dira. Horregatik hemen nire kanon partikularra eskaintzera arriskatu ordez, III.2. eta IV.1. ataletan egiten dut beste batzuk egindako proposamenen kritika.

Prozedurei dagokionez, hau da agian historiaren irakaskuntzan neutralentzat jotzen den arloa. Azken finean historia nola landu jakiteko teknika eta metodoei dagokio, eta arlo batez ere praktikoa den heinean, suposatzen da hemen ez dela ideologia eta halakorik sartzen. Eta hori egia da printzipioz, euskal historiako metodologiak beste edozein herrialderen historia lantzeko metodologiaren berdina izan behar baitu (grafikoak, estatistikak, testu iruzkinak...).

Nolanahi ere, euskal historian hizkuntzari lehenetsua eman diodala kontuan hartuz, komenigarria litzateke iruzkinak egitean euskarazko testu historikoak baliatzea (erdarazkoez gain, hauek ere ezinbestekoak baitira, baina hori orain arte inork ez du kuestionatu). Diot hau, sarriegi euskal historia landu izan denean euskarazko testu historikoak guztiz baztertu direlako. Adibidez hainbat datu eskaintzen dituzte bertsoek eta kantuek (nekazarien bizimodua azaltzen dutenak, karlistadetakoak, Napoleonen gerretakoak...), euskal aldizkarietako artikuluek (*Eskualdunakoak*, *Euskalzalekoak*, *Euzkadikoak*, *Argiakoak*...), apaizen sermoiek (herriarren bekatuen inguruko salaketekin eguneroko bizitzaren inguruko albiste interesgarriak eskainiz), literatura lanetatik atera daitezkeen pasarte historikoei (Etxepare, Lazarraga, Axular, Mogel...), etab. Material oso heterogeneoa dago hor, hainbat zailtasunekin: ez dago euskal testu historikoen bildumarik prest helburu didaktikoekin; eskuratuta ere egungo irakurlearentzat euskalkizko testu zaharrak sarritan erdal testuen itzulpen modernoak baino zailagoak dira; etab. Baina landuz gero hezkuntzan erabiltzeko moduko hainbat material baliagarri eskura liteke. *Kondaira* aldizkarian, Testu Historikoen atalean, halako testuak biltzeko ahaleginetan dihardugu, proiektuak zer landu asko badu ere oraindik.

Halaber ezin utzi aipatu gabe jatorriz euskaraz sortuak izan ez arren Euskal Herriaren historiarekin lotuta dauden testu eta material historiko bilketak, klasean iruzkinak egiteko primerakoak. Hor nabarmendu beharra dago batetik Koldo Larrañagaren ardurapean ateratako *Euskal Herria antzinate berantiarrean eta lehen ertaroan: materiale eta agiriak* (EHU, Leioa, 1992) latinezko eta grakozko testuen euskal itzulpena dakartenak, bai eta Vicente Huici eta Juan Madariagak bost tomotan publikatu zuten *Euskal Herriaren Historiarako Materiale eta Agiriak* bikaina ere (UNED, Donostia, 1989-1990: testu historikoak jatorrizko hizkuntzan biltzen ditu, hots, gaztelaniaz, euskaraz zein frantsesez). Obra biok funtsezkoak dira, eta irakaskuntza zentro guztietan eskuragarri egon beharko lukete. Badira munduko historia gaien inguruko zenbait testu euskarara itzulita ere, tartean EHUko historia irakasle talde batek argitaratutako *Historia testu bidez* aipa daitekeelarik (EHU, Gasteiz, 1998). Azken liburu honetako testu ia guztiak, liburuaren egileen baimenaz, *Kondaira.com* aldizkariko material historikoen atalean eskegita daude, nahi dituenarentzat libreki eskuratzeko moduan.

### **III. Euskal curriculuma EAEko hezkuntzan: “Euskal Herriaren historia” ikasgaiaren kasua**

#### **III. 1. Historia curriculumak nola finkatzen diren EAEn**

Orain arte azaldutako teoriak errealitatearekin alderatu guran, Euskal Herriko hezkuntzan euskal historia nola irakasten den aztertzeko kasu bat hartu dut. Konkretuki euskal hezkuntza ustez ongien dagoen Euskal Herriaren zatian, hots, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) euskal historiaren egoera zein den aztertzen saiatu naiz.

EAEko eta orobat Hego Euskal Herriko hezkuntza sistema Espainiakoaren baitan txertaturik dago. Horrek esan nahi du printzipioz hezkuntzaren eskumena EAEn dagokiola, baina oinarri orokorrak Espainiako Hezkuntza Ministerioak finkatzen dituela, eta ondoren, horien gainean, autonomia erkidegoak bere eduki propioak erantsi ditzakeela. Konkretuki hizkuntza propiodun erkidego autonomoei (Katalunia, Galizia, Valentzia, EAE,

Nafarroa...) hezkuntzako edukien %45eko portzentaia finkatzeko aukera ematen die legeak, eta gainerako %55a Estatuak ezartzen du. Eskema honek duen arazo nagusia proportzio kontua baino gehiago planteamendua da: abiapuntua Estatuak ezartzen duenez, hau da, ikasgaiaren oinarriko eskema egina datorrenez, gero eduki propioak, kopuruz esanguratsuak izan badaitezke ere, derrigor eskema horretara moldatu beharra dute. Eta horrela ez dago ikuspegi propio bat eraikitzerik.

Irakaskuntza ertainetara mugatuz (DBH eta Batxilergoa, hau da, 12-18 urte arteko neska-mutilei dagokiena), Espainian, Estatuak, dekretu bidez, honako historia ikasgaiak finkatu ditu<sup>10</sup>:

- *Gizarte zientzia, Geografia eta Historia*, DBHko ikasle guztientzat (DBHko kurtso orotan emateko)
- *Mundu Garaikidearen Historia*, Batxilergoaren baitan Humanitate ibilbidea hautatu duten ikasle guztientzat (Batxilergoko lehen kurtsoan ematen da)
- *Historia*, Batxilergoko ikasle guztientzat, hautatu duten ibilbidea edozein izanda ere (Batxilergoko bigarren kurtsoan ematen da)

Dekretuak zehazturiko edukiei erreparatuz, DBHko ikasgaien (ikasleek *Gizarte* izen laburtuaz deitu ohi dutena) munduko historiari dagozkio atal gehienak, baina Espainiari ere aski arreta eskaintzen zaio. Batxilergoko *Mundu Garaikidearen Historian*, aldiz, Espainia aipatu ere ez du egiten Hezkuntza Ministerioaren dekretuak. Azkenik *Historia* izen generikodun ikasgaia, izatez, Espainiako historia da. Estatuak zehazturiko espainiar historiaren oinarri horietatik abiatuz, jakina, erkidego autonomoek beren garapen eta eduki propioak gehitu ditzakete. Eta horixe da EAEko gobernuak egin duena azken ikasgai horrekin<sup>11</sup>, bertan euskal historiako edukiak erantsiz, baina Estatuak ezarritako eskematik abiatuz ezinbestean. Horrek aldean dakar historia Espainiako zikloen arabera egituratzea eta ondorioz euskal historia ezin antolatzea modu propio batez. Nolanahi ere euskal edukiak txertatzeko saio nahiko duina antzematen da, bereziki Hego Euskal Herriko historiari dagokionez. Aldiz Iparraldeko historia nekezago txerta zitekeen Espainiako epealdietan, eta horregatik, ahalegin batzuk gora behera, nahiko bazterturik geratzen da. Hola bada, ikasleek ikasgai honen bidez euskal historia ikasteko izan zezaketen aukera espainiar abiapuntuak distortsionatua geratzen da.

Batxilergoko bigarren kurtsoko *Historia* ikasgai honetan euskal historiak duen ikuspegi propio falta selektibitateko probetan ere antzeman daiteke: EHUn egiten diren azterketetan behintzat, iruzkina egiteko jartzen diren testu original guztiak gaztelaniazkoak dira, sekula ez euskarazkoak (nahiz azterketarako itzuli egiten diren). Hau da, euskal historiari lotutako testu historikoak hautatzean ere, beti gaztelaniazkoak aukeratzen dira (“El clero vasco ante el franquismo”, Bilboko *La lucha de clases* aldizkariako artikulua bat...). Antza azterketa horiek jartzen dituztenentzat euskarazko dokumentu historikorik ez dago, edo akaso badaudela jakin arren, ez dute ezinbestekoa ikusten euskal historian sakontzeko halakorik sekula jartzea. Hor ageri da euskal historiaren beren ikuspegi euskarak ez duela lekurik.

EAEko ikasleek, bada, DBHko *Gizarte* ikasgaien batez ere munduko historia ikusten dute; Batxilergoko lehen mailan, humanitate ibilbidetik joanez gero, gehiago sakontzen dute munduko historia horren epe garaikidean; eta azkenik, Batxilergoko bigarren mailako ikasle guztiek, Espainiako historia ikasten dute, Hego Euskal Herrikoa atxikita duela, baina euskal ikuspegiari autonomia handirik eman gabe. Niretzat, eta azken kurtso honi dagokionez, izatekotan ere alderantziz beharko luke izan: hasteko euskal historia bat eraiki ikuspegi propioarekin, eta hari, osagarri gisa Frantzia/Espainiako (edo hobe Europako) historia erantsi. Baina horrek EAEko hezkuntza autonomia dena baino handiagoa izatea eskatuko luke (edo agian Eusko Jaurlaritzaren aldetik ausardia handiagoa izatea, moldapenak espainiar eredutik abiatuz egin beharrean aurrenik euskal eredia eginez eta ondoren hartara moldatuz Estatutik datorren oinarria).

Agian Eusko Jaurlaritza jabetu egin zen batxilergoko bigarren kurtsoak euskal historia ikasteko eskaintzen zuen aukera aski mugatua zela, zeren 2003 urtean *Euskal Herriaren historia* izeneko ikasgai bat sortzeko dekretua onartu zuen, batxilergoko lehen kurtsoan nahi zuten ikasleek hautazko gisa hartzeko aukera emanez<sup>12</sup>. Ikasgai

<sup>10</sup> Cf. 2001.01.16ko BOE, 14. zenb., 1817-1820, 1858-1859, 1865-1866, 1905-1906 orr. Aipatu gabe uzten ditut artearen edo musikaren historia.

<sup>11</sup> EAEko moldapena ikus in 2003.03.21eko BOPV-EHAA, 58. zenb., 4745-4759 orr.

<sup>12</sup> Cf. 2003.01.16ko BOPV-EHAA, 10. zenb., 616-624 orr. Kurioso da Batxilergoko bigarren kurtsoko espainiar *Historian* euskal edukiak txertatu baino bi hilabete lehenago aurkeztu zela *Euskal Herriaren historia* ikasgai honen

guztiz berria da, ez dena ezein espainiar dekreturen moldapena, beraz euskal historia ikuspegi propioz lantzeko aukera ona izan zitekeen. Hori da beraz aztertuko dudana.

### III. 2. Kontzeptuzko edukiak “Euskal Herriaren historia” ikasgaiari

Ikasgai honen kontzeptuzko edukiak dozena bat ataletan bereizten dira: “0. Ezagutza historikoa”; “1. Euskal Herriaren geografia fisikoa”; “2. Historiaurrea”; “3. Erromatarrek Euskal Herrian”; “4. Esklabutza oinarrituriko produkzio-sistemaren krisia eta sistema feudalaren sorrera”; “5. Euskal Herria Erdi Aroan”; “6. Euskal Herria Aro Modernoan”; “7. Euskal Herria Aro Garaikidean”; “8. Euskal Herrian Aro Garaikidean izandako mugimenduak”; “9. Euskal demografia historikoa”; “10. Euskal Herriko historiografia”; “11. Artea Euskal Herrian”.<sup>13</sup>

Egitura orokorrak, beraz, kronologia segitzen du: sarrerakoak diren ezagutza historikoaren atala (0) eta historia gauzatzen den eremu geografikoari buruzko atala ikusi ondoren (1), historiko garai desberdinak, ohiko epealdietan banatuta segitzen dira (2-7 atalak). Soilik azken atalak (8-11) aldentzen dira hurrenkera kronologikotik. Izan ere, aurreko atalen gai osagarri edo garapentzat har daitezke, eta, beraz, haien baitan txertaturik ere ager zitezkeen. Baina epe historiko bakoitzeko edukiak (2-7 atalak) aski konplexuak bide direlako edo horiek gehiago ez luzatzearen, 8-11 atalak aparte jarri dira. Baliteke, halaber, azken lekuan jarrita egotea egitaraua finkatu zutenek aurrekusi zutelako kurtsuan zehar ez zela astirik egongo dena ikusteko, eta zerbait kentzekotan akaberako horri iritzi ziotelako garrantzi gutxienekoa. Nolanahi delarik, Euskal Herriaren historia moduko gai zabal bat atalkatzea aski konplexua delarik, egitarau ofizial honek aurkezten duen soluzioa nahiko onargarria iruditzen zait, ukatu gabe bestelako aukerak ere posible zirela. Egitura orokor honi zuzenketaren bat egitekotan, 10. atala nik 0. atalarekin elkarturik emango nuke, ondoren esango dudan moduan. Aipa ditzadan bada, atal desberdinak banan.

0. atalean “Ezagutza historikoa: ezaugarri nagusiak” dioen azalpen soila ageri da. Atal honetara 10. atala bilduz gero, “historiografia” edo “zer da historia” moduko izena lukeen atal bakarra osa zitekeen. Hala, 10. atalak aipatzen duen “Erdi Aroko historiografiatik azken hamarkadetako historiografiara” gaia, ezagutza historikoaren ezaugarri orokorrekin batera lantzeko aukera egongo zen. Agian ez izen horrek iradokitzen duen kutsu akademikoarekin, baina bai eskematikoki, ezagutza historikoa nola sortu den eta zer funtzio duen aztertuz, beti ere Euskal Herriko historiografiaren adibideak lagingo jarri<sup>14</sup>.

---

dekretua. Eusko Jaurlaritzan beldur ote ziren ezingo zituztela nahi zituzten moldapenak egin espainiar historian eta beraz alternatiba gisa sortu ote zen euskal historia hau? Kurioso da halaber *Euskal Herriaren historia* honen edukiak ez zituztela aprobetxatu gero Batxilergoko bigarren kurtsoko *Historiaren* edukiak moldatzeko orduan: bietan ageri dira euskal historiak baina bietako ezein ez da bestearen eredu gisa erabili.

<sup>13</sup> Eduki hauek guztiak in 2003.01.16ko *BOPV-EHAA*, 10. zenb., 619-621 orr.

<sup>14</sup> Hor egokia izan liteke oroitaraztea, historia ikasleen errealitatearekin lotura gabeko disziplina dela pentsa ez dadin, pertsona guztiak lantzen dugula iragana: txikitako argazkiak gordetzea, urteak ospatzea, lagunekin izandako une onak (edo txarrak) gogoratzea... hori dena historia lantzea da. Memoria indibiduala ere historia baita. Eta memoria indibiduala lantzen den bezala, hala jorrazten dela memoria kolektiboa ere: gure familia nola osatu zen jakin nahi dugu, gure kirol taldeak iraganean lortutako garaipenak ezagutu gura ditugu, bikotearekin irteten hasi ginen eguna ospatu, gustatzen zaigun musika taldea noiz eta zelan sortu zen ulertu... Historiaren abiapuntua identifikatzen gaituzten nortasun desberdinen iragana ezagutu nahia baita. Gure adiskide koadrila, familia, auzoa, kirol taldea, adina, hobby-a, generoa, aukera sexuala, klase soziala, erlijioa, herria, nazioa, kontinentea, humanitatea... Hainbat identitate izan ditzakegu, eta horien iragana interesa dakiguke. Euskal Herriaren historia ere motibo beragatik lantzen da: euskal nortasuna (adibidez hizkuntzatik abiatuz defini daitekeena) gure identitateetako bat delako. Zer funtzio ote dute iragan horiek (norberea, adiskideena, kirol taldearena, nazioarena...) ezagutzeak edo urtemuga bidez ospatzeak? Horretaz ikasgelan debatea irekitzea interesgarria litzateke, historiak duen funtzioa eta zentzua ulertzen laguntzeko. Oro har historiak nortasun jakin bat indartzeko balio izaten du, prestigiatzeko eta legitimatzeko. Funtzio horrekin sortu zen historiografia, talde desberdinen ospea, boterea eta zilegitasuna bermatzeko, adibidez errege dinastiena. Euskal Herrian ere, talde eta interes desberdinak defendatzeko asmoz hasi ziren historia idazten Erdi Arotik: erregeen historiak, probintzia bakoitzaren historiak, udalen historiak, Elizaren historiak... bakoitza bere boterea eta eskubideak indartu guran. Historia apologetiko horien arriskua, etxe-kontsumorako eraikitzen ditugun gure memoria partikularrena bezala, gorazarre akritikoan geratzearena da, edo are mitologian bukatzea (euskal historiografia tubalista zaharrea gertatu zen bezala). Horregatik, puntu honetan, historiografia modernoan apurka-apurka garatuz joan diren

1. atalean, Euskal Herriaren geografia fisikoa lantzerakoan ikusi beharreko puntuak aipatzen dira: ekosistemak, morfologia, hidrografia, klimak, itsasoa, animaliak eta landareak... Ez dut horretaz zer esanik, ez bada egitarauak zehaztu gabe uzten duela *Euskal Herria* izenpean zertaz ari den: diot hau ezen hurrengo atal historiko gehienek Hego Euskal Herriko gertakariak aipatzen baitituzte soilik. Hortaz ez legoke gaizki nonbait (eta atal geografiko honek dirudi leku aproposena) esplizituki aipatzea zein den ikasgai honi dagokion Euskal Herria izeneko esparru geografikoaren hedadura zehatza. Hedadura hori, jakina, “zazpi probintzia edo herrialdeen osotasuna” da, *Euskal Herria* hitzari bere zentzu konbentzionala errespetatuz (eta, bide batez, hizkuntza kontuan autoritate ofiziala den euskal akademiaren arauak seriotan hartuz).

2. atalean Historiaurrea azaltzen da. Giza bilakaera; protoeuskaldun ereduaren sorreraren teoriak; paleolito, neolito eta metal aroko aztarna, ekonomia eta jendartea; eta euskararen sorreraren inguruko teoriak azaltzeko proposatzen da. Ez daukat atal honen inguruan kritikarik (garai hau nire espezialitatetik aski urrun geratzen da). Itxura ona du dagoen bezala, eta euskal subjektu historiografikoari dagokion *euskara* gaia esplizituki jasotzea laudagarria da.

3. atala erromatarren etorrera garaiari dagokio. Hemen ere aipatzen diren puntu gehienak egokiak iruditzen zaizkit: Euskal Herri inguruaz jasotako lehen kronika eta albisteak, erromatarren etorrera, hiriak eta galtzadak, antolamendu politiko-administratiboa, latinak euskarari egindako ekarpena (hau ere oso aproposa historiaren euskal ikuspegia betetzeko)... Zerbait kritikatzekotan *saltus* eta *ager vasconum*-en kontua aipatuko nuke: topiko historiografikoa bihurtu da euskal mendialde eta lautada artean erromatarrek *saltus* / *ager* bereizketa egiten zutela. Egitarau ofizial honek ere jasotzen du puntu hori. Baina azken ikerketen argitan ezin esan daiteke halakorik: Julio Caro Baroja izan zen, erromatar testuak oker interpretatuz, bereizketa hori seinatu zuena, halakorik erromatar ahotan ezin jar daitekeelarik<sup>15</sup>. Beraz egokia litzateke dikotomia oker horren aipamena kentzea.

4. atalak erromatar inperioaren krisitik Baskoniako dukerrira arteko aldia jasotzen du. Garai ilun horri buruz hain direnez urriak dauzkagun datu historikoak, nik 3. atalaren baitan jasoko nituzke 4. honetan ageri diren puntuak, Antzinate osoa atal bakarrean bilduz (erromatarren etorreratetik Antzinate Beranta deitu den horretaraino hedatuko litzatekeena). Ez baita bidezkoa oso datu gutxi eskaintzen dizkigun garai honi, hurrengo puntuan doan Erdi Aroko aldi askoz luzeago eta ezagunagoari adinako tartea eta atal berezia ematea. Gainerakoan, eduki aldetik ondo dago, salbu akaso xeheegia dela (“Victoriaco fundatu zenekoa” bezalako zehaztasunak aipatzea, adibidez, lartxo da, kontuan izanik 3. atalean ez direla esplizititzen Pompaelo edo Lapurdum moduko hiri garrantzitsuen izenak, ezta 5. atalean Lizarra, Gasteiz, Donostia, Bilbo edo antzeko hiribildu mediebalen izenak; gainera, Victoriaco, beste hiri guztiok ez bezala, adituek ez dakite zehatz non dagoen ere).

5. atala Erdi Aroari buruzkoa da. Atal honetan proposatzen diren puntuak oro har egoki ikusten ditut. Hala ere, xehetasun batzuk erantsiko nizkieke. Egitarau ofiziala, hola hasten da: “Nafarroako Erresuma sortu eta finkatu zenekoa. Islamiarrak Euskal Herrian: Banu-Kasitarrak. Antso III ‘Handia’ren garaia: Nafarroako erresumaren hedapena; geroztikako zati-banaketa.” Nik kronologia hobeto gordetzearren, musulmanen etorrera jarriko nuke lehenik eta ondoren Iruñeko erresumaren sorrera eta finkapena (ohar bedi erresumaren jatorrizko izena “Iruñekoa” zela ez “Nafarroakoa”: azken izendapen hau geroago hartu baitzuen XIII. mendetik). Xehetasunak zuzentzen hasita Antso III.a “Nagusia” moduan aipatu beharko litzateke, “Handia” forma gaizki eginiko itzulpena baita (gaztelaniaz azaldu ohi den “el Mayor” ez baitagokio bere handitasun inperialari, baizik neba-arrebetan zaharrena, hots nagusia izateari). Egitarau ofizialean, Erdi Aroko atalean segituz, “Hiribilduen sorrera” izeneko puntua dator segidan, horrek ekarritako aldaketa ekonomiko, sozial, politiko eta bestelakoak egoki aipatuz (ahaide nagusien borrokak...). Nik, ordea, Iruñeko erresumaren puntua XIII. mendean utzi ostean, eta hiribilduekin hasi aurretik, tarte horretan Erdi Aroko jendartea eta bizimodua nolakoa zen aztertzen duen

---

metodo kritikoen berri eman beharko litzateke, iturrien errespetua azalduz, positibismoak horixe defendatzen zuela, eta horrek guztiak Euskal Herrian izan duen bilakaera gainetik agertuz, ez hainbeste euskal historialarien izenak irakatsiz, baizik historia nola landuz joan den azalduz.

<sup>15</sup> *Saltus / Ager* bikoiztasun okerraz ikus Larrea (1998).

puntua sartuko nuke<sup>16</sup>. Modu horretan hobeto ulertuko da ondoren hiribilduen sorrerak eragin zuen aldaketa sakona (bizimoduan, ekonomian, lurralde garapenean...).

Erdi Aroko atal honetan (edo hurrengoan) aipatu gabe geratzen dena Nafarroaren konkista da. Erdi Aroko azken puntu gisa “Lurralde historikoen egituratze instituzionala” ageri da, eta agian nafar aferan implizituki hor doala pentsatu behar da, baina nik uste esplizituki aipatzea mereziko lukeela. Gainera Nafarroaren konkistari dagokion puntua erraz asko sartu ahalko litzateke Ahaide Nagusien borrokaren atalean (edo haren segidan), bandoen gerrek lotura zuzena izan baitzuten konkista hartan. Beste aukera hurrengo atalaren hasieran txertatzea litzateke, Euskal Herriko Aro Modernoaren lehen mugari gisa.

6. atala, beraz, Aro Modernoko Euskal Herriari dagokio. Aipatzen dituen puntuak, oro har egokiak dira. Hala ere bada okerren bat, gabezia batzuk eta ordena ere ez da ene gustuko egokiena. Okerra karlismoari dagokio, puntu hau, segurki akats bategatik, Aro Modernoko atalean jarria baitago, “Euskal Herriko erakunde politikoen eramolde instituzionala: foruak” eta “Ilustrazioa Euskal Herrian” puntuen aurretik. Esan beharrik ez dago karlismoa Aro Garaikideko fenomeno dela, eta beraz hurrengo atalean egon beharko lukeela.

Gabezia Ipar Euskal Herriaren gainekoa da, hango historia guztiz falta baita egitarauan. Izatez aurreko ataletan ere ez da zonalde horren aipamen espliziturik ageri, baina ezta Bizkaia, Gipuzkoa edo Arabarenik. Hortaz Aro Modernoko atalera iritsi artean gabezia hori ez zen bereziki nabarmena, posible baitzen puntu generikoen baitan lurralde guztien erreferentziak txertatzen joatea (adibidez “erromatar hirigintza” puntuak, lurralde zehatzik aipatu ez arren, Iparraldeko Lapurdum zein Bizkaiko Forua edo Arabako Veleia ikusteko aukera ematen zuen; eta gauza bera egin zitekeen Erdi Aro ataleko “Lurralde historikoen egituratze instituzionala” puntuan). Aro modernoan, ordea, egitarauko puntuak Hego Euskal Herriari dagozkio nabarmen. “Politika: foru-legea” puntua, adibidez, ondo egokitzen zaio Hego Euskal Herriko antolaketa foralari, baina Lapurdi eta Zuberoako kostumen egoera ez da eredu horretan ondo sartzen. Hurrengo puntuak dio: “Ekonomia: Laborantza. Artoaren iraultza. Burdingintza: burdinolak. Merkataritza: Gipuzkoarren Caracasko Errege Konpainia”. Aipamenik ere ez Aro Modernoan Lapurdin (eta baita Bizkaian eta Gipuzkoan ere) izugarrizko garrantzia izan zuen balearen ehizari eta bakailaoaren arrantzari. Hurrengo puntu bat Matxinaden ingurukoa da, haren baitan, adibide gisa edo, “Gatzaren estankoa (1631), Aduanen matxinada (1718) eta 1766ko matxinada” aipatzen direlarik. Iparraldeko etsenpluren bat erraz sar zitekeen (adibidez Zuberoako Matalasen matxinada, 1661 urtekoa edo Lapurdiko “gerra zibil” latza 1655-1659 urteetan). Adibideak sartzen hasita, eta lurralde oreka ez galtzeko, Nafarroan garaian gertatu zen matxinadaren bat ere aipa zitekeen (eta asko izan ziren). Egia da, egitarau ofizial batean dena ezin zehaztu daitekeela, eta agian komeni ere ez dela hainbeste zehaztasun sartzea. Baina kasu horretan “Matxinadak” puntua, soil-soil utz zitekeen, adibiderik gabe. Zeren ez dirudi bidezkoa etsenplu konkretuak ipintzekotan soilik Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak jartzea.

Iparraldeari buruzko gabezia, baina, ez da hainbeste haren inguruko adibide konkretuen falta. Arazo larriena Euskal Herriaren historia antolatzerakoan, Iparraldea egitura narratibotik kanpo utzi izanean dago: euskal ikuspegia osatu da soilik Hegoaldea (edo are Bizkaia-Gipuzkoa) izanik buruan. Iparraldeko gertaerak, antza ez dute ez presentziarik ez eraginik Euskal Herriko historiaren egitura orokorra antolatzeko orduan. Hala uler daiteke Aro Modernoko lehen puntua “Politika: foru-legea” izatea. “Foru-legea” eskemak Hegoaldeko historia laburtzeko balio dezake baina ez Euskal Herri osokoa. Egokiagoa litzateke “Politika: Nafarroaren konkista eta zatiketa; Ipar Euskal Herria Frantziako monarkiaren orbitan, Hegoaldea Hispaniar Monarkian foruekin” gisako zerbait.

---

<sup>16</sup> Puntu hori polito azter daiteke Aymeric Picaud-en XII. mendeko testua jorratuz: bertan garaiko euskal ekonomia, elikadura, elkartrukeak, talde sozialak, erlijioasuna, euskara, ohiturak eta abar ikus litezke (testu hori euskaratuta aurki daiteke oso-ororik in Bilbao, 1994, eta ia osorik in [www.kondaira.com](http://www.kondaira.com) > Historia materialak > Testu Historikoak > Erdi Aroa > “Euskal Herria XII. mendean, Donejakue bideko erromes liburu baten arabera (1135)”). Ohar egitekoa da hizkuntzaren auzia egitarau ofizialak ahaztu egin duela Erdi Aroari dagokion 5. atal honetan (aurreko ataletan ez bezala), eta beraz jendartearen inguruko puntu hau egokia litzateke euskararen Errioxako lekukotzak aipatzeko (Donemiliaga kukulakoak), idatzi erromantzez eta latinez egiten zela aipatzeko (baina aldika euskal hitzak eta esaldiak agertzen zirela nafar agiritan), arabieratik euskarara pasatutako hitzak gogora ekartzeko, eta jakina, Erdi Aroko Euskal Herrian bizi ziren gutxiengo linguistiko eta erlijioso desberdinen berri emateko: arabieraz mintzo ziren Erribera aldeko musulmanak, judu komunitateak, gaskoiak, gaztelaniaren sorrera Burgos-Errioxa-Mendebal Araba aldean, nafar erromantzea... (gai hauek lantzeko agiri gehiago aurki daitezke arestian aipaturiko [www.kondaira.com](http://www.kondaira.com)-en Historia materialen atalean).



Eskema honek aukera ematen du Etxepare eta Perez Lazarraga ernazentistak aipatzeko, baita Leizarraga eta Joana Albretokoaren erreforma protestante saioa, edo Henrike IIIak Nafarroa Beheretik Frantziako koroara egindako aldaketa (boterea non zegoen eszenifikatuz). Ondoren bete-betean kontu liteke Hego Euskal Herrian finkatu zen foru-legea eta haren ezaugarriak. Horri dagokionez, dena dela, egitarau honek bi puntutan aipatzen du foruen auzia (hasieran eta “karlismoa” puntu okerraren ostean). Hortaz puntu bakarrean biltzea komeniko litzateke foruena. Azken hau zen, hain justu, ordenari buruz ene ustez zuzendu behar zen kontua.

Aro Modernoarekin amaitzeko, euskararen inguruko gabezia ere aipatu beharra dago: hizkuntza honen (eta beste edozeinen) aipu guztiak desagertu egin dira egitarau ofizialetik. Euskal literatura idatzia garai honetan sortu zela aipatzea ez legoke gaizki.

7. atalera pasatzean Aro Garaikidean sartzen gara. Egitarauak proposatzen dituen puntuak, hemen ere, oro har egokiak begitantzen zaizkit. Huts larriena, Aro Modernoko atalean bezala hemen ere, Ipar Euskal Herriaren bazterketa da. Historiaren eskema osoki Hegoalderako eginda dago, eta, ondorioz, hein handian Espainiako historiografiaren ereduak segitzen du. Hala ere, aitortu beharra dago, gutxienez Aro Garaikidea ez duela hasten, espainiar historiografian ohi denez 1808an, baizik 1789 aldera, Frantziako Iraultzarekin (Europa osoan eragina izan zuena, eta, beraz, mugari gisa Euskal Herri osorako ere balio diguna). Eta “1789 aldera” diot, egitarau ofiziala “Frantziako Iraultzak eragindako ondorioak” puntuarekin hasten baita, iradokiz ez diola erreferentzia egiten Iparraldean iraultzaren inguruan bizi izan ziren gertaera zuzenei, baizik “Frantziar” jazotako iraultzak, “ondoren” Hego Euskal Herrian eragin zituen ondorioei. Horregatik, nik uste, “Frantziako Iraultza Euskal Herrian” gisa zuzendu beharko litzateke puntu hori (edo nahiago bada, eta esplizituago esatearren, “Frantziako Iraultza Ipar Euskal Herrian eta bere ondorioak Hegoaldean”).

Hurrengo puntuak espainiar historiografiarekiko morrontza are gordinago salatzen du: “Independentziaren aldeko gerra Euskal Herrian. Kadizko Konstituzioa”. Historia jakin gabe hau irakur dezan euskaldun batek Euskal Herria bere independentziaren aldeko gerran aritu zela ulertuko du. Ez bada. Izendapen horrek Napoleonek Espainian burutu zuen gerrari egiten dio erreferentzia. Izatez ohargarria da gatazka unean bertan inork ez ziola deitzen “(espainiar) independentziaren aldeko gerra” baizik “frantsesen aurkakoa”. “Guerra de la Independencia” izena espainiar historiografiak sortu zuen geroago, eta egun izendapen horren egokitasuna zalantzan jarri izan da<sup>17</sup>. Katalan historiografiak, adibidez, izendapen horren kutsu espainolista saihesteko “Frantsesaren aurkako gerra” deitzen dio epe horri. Herri mailan ere Espainia osoan (Hego Euskal Herrian barne) “Frantsesada” gisako izenak erabili izan dira (“Karlizada”, “Gamazada” eta halakoen molde herrikoiei berekoa). Euskal ikuspegitik, ordea, ez dut uste katalan aukera edo “Frantsesada” (edo inoiz irakur daitekeen “Frantsesada”) egokiak direnik: Antonio Zavalak behin adierazi bezala, Hegoalderako balio lezake, baina kontuan izanik “frantses” horietako asko Iparraldeko euskaldunak zirela, haien ikuspegitik “Espainolada” ere deitu ahalko litzaioke gerra horri<sup>18</sup>. Hortaz egokiagoa izan liteke Zavalak proposatzen duen “Napoleonen Gerra Euskal Herrian” gisako zerbait erabiltzea (baina ez “Napoleonen aurkako gerra”, zeren Iparraldeko euskaldunentzat haren aldekoa ere izan zitekeen).

Kadizko Konstituzioari dagokionez, ez daukat ezer kritikatzeko hura (eta bere ondorioak Hego Euskal Herrian) azaltzearen inguruan. Baina, paraleloki ez legoke gaizki egitarauak Frantziako Konstituzioak (behintzat Iraultzako lehenak) aipatzea, Iparraldean eragin zuzena izan baitzuten (europar ikuspegitik espainiarrak baino garrantzitsuagoak izateaz gain).

---

<sup>17</sup> Espainiar historialari batek “invención de ‘La Guerra de la Independencia’” aipatu izan du (Alvarez Junco, 2001: 119-129), gerra hark, ondorengo historiografiak halako izena eman arren ez baitzuen zerikusirik izan Espainiaren independentziarekin (baizik gerra dinastiko eta Antzinako Erregimen vs. liberalismo gatazkekin). Historialari hori ez da ausartu “Guerra de la Independencia” izendapena beste batekin ordezkatzeko, espainiar historiografian sakon errotuta dagoen konbentzio deritzolako. Ez naiz sartuko espainiar historiografian, baina guk, euskaraz behintzat, ez daukagu gurea ez den tradizio bat zertan errespetatu, are gutxiago aski eztabaidagarria denean.

<sup>18</sup> Ohar interesgarri hauek Zavalak (1989: 439-440) egin zituen gerra hartako bertsoen inguruko bere artikuluko baten izenburua justifikatzen: “El título, ‘La guerra napoleónica de España y los bersolaris’, evita las expresiones ‘guerra de la Independencia’ y ‘francesada’ –*frantzestea* en el euskera del sur del Bidasoa–, porque hay también estrofas de los vascos del norte de este río, los cuales no verían en ella ninguna guerra de la independencia y, en vez de ‘la francesada’, la hubieran podido llamar ‘la española’.”

Aro Garaikideko hurrengo puntuek, gutxi-asko, Hego Euskal Herriko historiaren mugariak aipatzen dituzte: gerra karlistak, foruak galtzea, industrializazioa, 1936ko euskal estatutua, gerra zibila, frankismoa, trantsizio politikoa, egungo egoera... Puntuotan bada hutsunerik. Bereziki aipatuko nuke lehen eta bigarren gerra karlisten artean garatu zen Foralitate Berria izeneko epealdia, egitarauan ageri ez dena (eskema tradizionala mantentzen du egitarauak: lehen gerra, Bergarako besarkada, Nafarroako “hitzarturiko legea” eta segidan Bigarren gerra). Industrializazioaren gaitik Euskal Autonomia Estatutura ere zuzenean salto egiten da, 1876-1936 arteko erregimen politikoen aipamenik egin gabe (Errestaurazioa, Primo de Riveraren diktadura, II. Errepublika). Ez dut esaten erregimen guzti horiek xeheki azaldu behar direnik, baina uste dut industrializazioa edo euskal estatutua zein testuingurutan azaldu ziren aipatu beharko litzatekeela, airean zintzilik sortu zirela eman ez dezan.

Nolanahi ere, hutsune horiek ez dira larriegiak. Azken finean egitarauan Hego Euskal Herriaren historia (Nafarroa garaiarena barne) eskematikoki laburbiltzeko ahalegina igartzen da, eta laburtu beharrez zail zen gutzia sartzea. Gabezia nagusia, ostera ere, Ipar Euskal Herriari dagokio, inon ez baita ageri. Eskualde hau sartzeak, gainera, eskema osoa itxuraldatuko luke, honen epealdiak Hegoaldekoen desberdinak baitira. Nola uztartu Ipar eta Hego Euskal Herriko historiak? Inoiz aipatu izan dut gai hau, honako proposamen probisionalaren eginez:

Kontua ez dugu konponduko ikuspegi propioa soilik zazpi probintzietara mugatzearekin. Gura zein gura ez, Iparraldeko eta Hegoaldeko dinamikak, hondoz hondotik, Frantziar eta Espainiar gertatzen denari lotuta egon dira. Horregatik, gure epeketak taiutzean, estatu bien dinamikak present eduki beharko ditugu. Estatuak morrontza hau gainditzeko Euskal Herriko gertaerak testuinguru zabalagoan kokatzen ere saia gaitezke, mundu mailako zikloetan edo gutxienez Europa mailakoetan. Adibidez, definitiboan izateko asmorik gabe, honako epeketa proposa liteke: *1914/18tik 1936/45era, gerra eta gerrarte epe ezegonkorra* (lehen mundu gerraren ondoren Europa osoan, XIXtik zetozen sistema liberal-kontserbadoreak krisian sartu baitziren, alternatiba liberal-demokratiko, komunista, zein faxistak agertuz; eta giro ezegonkor hau azkenean gerra berrietan lehertu zen. Hor koka ditzakegu Euskal Herrian eragin zuten diktadura desberdinak, errepublikak zein gerra zibil eta mundialak); *1945etik gure egunetara, atlantismoa eta Europaren eraikuntza aldia* (gerra ostean mendebaldeko Europa estatubatuar orbita atlantiarraren pean geratu zelarik, multzo honen baitan zati batek, Alemania-Frantziak gidatuta, europar eraikuntza abiatu zuen, Ipar Euskal Herria barne hartuz; eta beste zati bat, Espainia frankista kasu, atlantiar orbitan egon arren europar eraikuntza eta dinamika demokratikotik kanpo geratu zen 1975/86 arte; eta hola zenbait azpiatal bereiz litezke...). Era horretara periodizazio propio bat ehundu ahalko dugu, gutziz independentea izan ez arren, gutxienez autonomoa (ez autonomikoa) eta estatuena baino testuinguru zabalagoan kokatuko dena. (Kintana, 2004).

8-11 atalak aurrekoen osagarriak direnez, ez ditut iruzkinduko. Soilik aipatu ñabardurak ñabardura onargarriak direla, salbu eta lurraldetasun kontuan Hegoaldera begira eginak daudela.

Honekin amaitzen dut kontzeptuzko edukien iruzkina. Euskal Herriaren historia osoa kanon eskematiko batean laburbiltzea erronka zaila zen dudarik gabe. Egitarau ofizial honetan saiatu dira lortzen, eta emaitza, txarra izan gabe, Hegoaldera mugatua irten da. Ahalegin partzial gisa onartu beharko da beraz, hurrengoan hobetuko den itxaropenean.

### **III. 3. Jarrerazko edukiak “Euskal Herriaren historia” ikasgaiaren**

Kontzeptuen edukien azterketatik ez da balio adoktrinatzailerik gordinik inon aurkitzen. Hego Euskal Herria mugatu ohi den lurraldetasun eredu bat antzematen da inplizitu, euskararekiko interes bat (baina Antzinaroan bukatzen dena), eta gainerakoan garai desberdinetako datu sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalak daude, hobeki edo okerrago laburbilduta, baina aski modu neutralean aurkezten direnak. Beraz kontzeptu historikoak ez daude helburu finalista bat iradokitzeke antolatuta (demagun Euskal Herriaren historia askatasunaren aldeko borroka konstante bat izan dela frogatzeko, edo kontrara Euskal Herriaren historia betidanik Espainiar kokatu dela adierazteko). Zentzu horretan lerrokatze ideologikoa saihesten jakin du egitarauak.

“Euskal Herriaren historia” ikasgaiaren dekretuan zehazten den jarreraren atal esplizitua bat dator esandakoarekin. Hots, ez da inon helburu nazionalizatzaile edo partidistarik nabarmentzen. Aitzitik beste edozein

historia ikasgaitan aurki daitezkeen erako balioen sustapena aipatzen du dekretuak: batetik ezaguera historikoaren inguruko balioen lanketa (“iraganarekiko interesa eta jakin-mina piztea, oraina ulertzeko bitarteko gisa”, “zorrozatasuna eta objektibotasuna indartzea”, “ikuspegiak eta interpretazioak behin-behinekoak eta erlatiboak direla azaltzea”...) eta bestetik maila humano orokorrako bati dagozkion balioen indartzea (“tolerantzia”, “enpatia”, “elkartasuna”, emakumeen garrantzia historikoaz jabetzea, elkarrizketaren balioaz ohartzea gatazkak konpontzeko, bakea balio gisa estimatzea, giza eskubideen lorpen prozesu baloratzea, ingurugiroarekiko sentiberatasunean sakontzea...).<sup>19</sup>

Ezaguera historikoaren inguruan aipatzen diren balio guztiak egokiak eta beharrezkoak iruditzen zaizkit, arlo akademiko honen izatea argitzen baitute. Balio humano orokorragei dagokionez, ados egon banaiteke ere horiekin, anbiziosegia iruditzen zait historiaren bidez hori guztia lantzeko asmoa. Kontzeptuen baitan txertaturik ematea, askotan esan dudanez, historia manipulatzeko litzateke (eta zorionez ez da halakorik ageri dekretuan zehazturiko kontzeptuen atalean). Egokiena, jakina, kontzeptuak azaldu ostean, gaiak aukera ematen duenean, klasean balioen inguruko gogoeta eta debateak irekitzea litzateke. Baina eskola orduak aski mugatuak izanik nekez aurki daiteke astirik kontzeptuei adinako tartea eskaintzeko jarrera/balioei, bereziki kontuan hartzen bada azken hauek ikasleen ebaluazioan aski pisu urria dutela. Gainera, nire ustez, egokia ere ez da historia balio humano orokorren transmisiorako hainbeste erabiltzea: halako balioak sustatu nahi badira sor edo bultzatu bedi ikasgai espezifiko bat (etika edo dena delakoa). Ez dut esan nahi historia ezin baliatu daitezkeenik aldika balio konkretuez gogoeta egiteko, baina historia ezin bihurtu daitezkeen balioen inguruko ikasgai baten ordezkia (eta ohar honek ez du soilik euskal historiarako balio baizik berdin munduko historia ikasgaietarako zein beste edozein historiarako). Historiak, nire ustez, bere baitatik bultzatu dezakeen baliorik baldin badago akaso mundua ulertzeko zentzu kritiko orokor bat izan daiteke, ez asko gehiagorik (besterik da historiako gaiak balio konkretuaz gogoeta egiteko erabiltzea).

Aipagarria da, halaber, balio orokorrak bultzatu guran, azkenean justifikatu gabe geratzen dela “Euskal Herriaren historia” ikasgaiaren euskal dimentsioaren afera. Zergatik ikasi euskal historia? Zeren arabera definitu da euskal subjektu historikoa? Euskal balioak transmititzeko asmoa al du? Hori apenas zehazten da dekretuan. Zeharkako aipu batzuk ageri dira aldika: “Gure ikasleek ezinbestekoa dute beren ingurumena ezagutzeko” (“tomar conciencia de su entorno” dio dekretuaren gaztelaniazko zatiak). Ingurune hori zergatik den Euskal Herria (eta ez euren udalerrria, probintzia, EAE, Espainia edo Europa) ez da argitzen. Inplizitu doa *Euskal Herria* izeneko lurralde bat dela, nahiz gero ez den bere hedadura inon zehazten eta *de facto* Hego Euskal Herrira mugatzen den kontzeptuen egitarauan. Ikasgai honek sustatu ditzakeen euskal balioen artean “Euskal Herriaren historia hobeto ezagutzeko interesa eta jakin-mina sortzea” lauso bat eta “ondare historikoa ezagutu eta kontserbatzeko interesa piztea: bai Euskal Herrikoa eta bai norberaren eskualdekoa ere” aurki ditzakegu (azken hau artxibo, museo eta gisakoei dagokiela). Beraz inon ez dira *euskara*, *Euskal Herria* eta *euskaldungoa* esplizituki agertzen ikasgai honen subjektu historikoa definitzen duten abiapuntu gisa, ezta beren baitako ondare eta balio gisa. Horretan, agian “zer esango duten” beldurragatik, dekretu hau lotsor ageri da.

Egia da, bai, gauza bera gertatzen dela Estatuak zehazten dituen espainiar historien dekretuetan, non balio unibertsal edo akademikoaren inguruko azalpenak diren nagusi, subjektu historikoa zergatik eta zein irizpideren arabera hautatu den argitu gabe. Halaber normalean ez da zehazten espainiar historiak, espainiar edukidun zeintzuk balio bultzatu nahi dituen. Hala ere, Batxilergoko bigarren kurtsoko espainiar *Historia* ikasgaiari dagokion dekretuan, bai aurki ditzakegu espainiar balioen zehaztapen batzuk: “Adquirir una visión de la evolución histórica de España en su conjunto y en su pluralidad”, “Consolidar actitudes y hábitos de tolerancia y solidaridad entre los diversos pueblos de España, respetando y valorando positivamente los aspectos comunes y las diferencias”...<sup>20</sup> Beraz Espainia ezaugarri amankomun zein pluralak dituen multzotzat hartzen da dekretuan, eta ikasleei ezaugarri bikoitz horrekiko onespina sorrarazi nahi die. “Euskal Herriaren historia” ikasgaiko dekretuan, aldiz, inon ez da esaten Euskal Herria ezaugarri komun zein pluralak dituen multzo bat denik (edo ez denik), ezta euskal lurralde anitzen arteko elkartasun ideia bultzatu gura denik ere. Eta nire ustez zerbait bai esan beharko litzateke euskal balioen inguruan. Ez zehazki euskal lurraldeen elkartasuna kontsolidatu gura dela (hori, espainiar lurraldeen elkartasuna kontsolidatzea bezala, ez baitzait iruditzen historiaren zeregina denik), baina bai esan beharko litzateke euskal subjektua zergatik hautatu den, zeren arabera definitzen den, konbentzio bat dela eta

<sup>19</sup> Cf. 2003.01.16ko BOPV-EHAA, 10. zenb., 616-624 orr.

<sup>20</sup> Cf. 2001.01.16ko BOE, 14. zenb., 1865 orr.

abiapuntu horrek jendartearen onespén aski zabala izanik, euskal kultura (eta konkretuki euskaratik abiatutako ikuspegia) ondareztat hartzen dela eta horri lotuta Euskal Herri ideia ere lantzen dela (hizkuntza baten esparru territorial gisa ulertuta; multzo horren elkartasun politikoa sustatu ala ez sustatu moduko auzietan sartu gabe).

Subjektua argitzeko azalpen hauek, auzi ideologikoak garbi uzteaz gain, ezaguera historikoa hobetzeko ere balio dute, diziplina historikoan abiapuntuak nola finka daitezkeen erakusten baitu, “ikuspegiak eta interpretazioak behin-behinekoak eta erlatiboak direla azaltze”ko helburu orokorragoan lagunduz.

### III. 4. Prozedurak “Euskal Herriaren historia” ikasgaiaren

Printzipioz arazo ideologikoekin loturarik txikiena duen atalera igarotzen gara prozedurekin. Alta didaktika eta irakaskuntzaren ikuspegitik atal hau oso arazotsua izan daiteke. “Euskal Herriaren historia” ikasgaiaren dekretuak, beste edozein historia ikasgaitan agertu ohi diren antzeko prozeduren lanketa proposatzen du: iturrien analisisa, testu iruzkinak, teknologia berrien erabilera, datuak azaltzen jakitea... Helburu teoriko gisa egokiak dira, nahiz batzutan 16 urteko ikasle baten gaitasunak kontuan izanik gehiegizkoak ere badiren (“zuzeneko eta zeharkako iturri historikoak bildu, erabili, aztertu, hipotesiak planteatu eta ondorioak atera beharko dituzte”: historialari profesional bati eska dakiokena da hori, ez hainbeste ikasle batek egin dezakeena)<sup>21</sup>.

Hala ere, prozeduren inguruko azalpen atala teorikoezia da. Jarduera konkretu gisa ardatz kronologikoak egitea, mapa kontzeptualak osatzea, mapa historikoak interpretatzen jakitea, testu iruzkinak egitea, mahai inguruak antolatzea, irteerak prestatzea eta halakoak aipatzen dira. Baina oraindik ere modu orokorregian. Adibidez, kontuan izanik prozedurak sarri testu iruzkin bidez ebaluatzen direla (bai ikasgai honetan eta baita hurrengo kurtsoko *Historian* zein selektibitatean), ez legoke gaizki horretan gehiago sakontzea. Esate baterako proposa liteke azter daitezkeen testu historikoen zerrenda bat. Badakit gauza zaila dela, baina irakasleari administrazioko adituei baino zailagoa egiten zaie bakarka aurkitu eta osatu beharra testu historikoen bilduma hori. Edo, testuez gain, egin daitezkeen txangoen, edo ikus daitezkeen bideo historikoen gida bat eskaintzea egoki litzateke. Eta zerrenda zehatz bat eskaini ezean erreferentziazko bilketa lanak edo jarduera osagarrien gidak zein diren esan beharko litzateke. Akaso dekretu batean ezin jar daiteke bibliografiarik, ez dakit, baina lagungarria litzatekeela ezin uka.

Amaitzeko, aproposa litzateke “Euskal Herriaren historia” ikasgaiaren baitan euskarazko jatorrizko iturrien erabilpena bultzatzea (jada II.4 puntuan aipatu diren euskal literaturako pasarteak, bertsoak, aldizkari zaharretako artikuluak, eta halakoak baliatuz) beti ere ikasleen mailara moldatuta, eta bestelako iturriekin konbinatuz (jatorriz erdaraz eginiko testuak, irudiak, mapak...).

## IV. Manex Goihenetxeren proposamena

### IV. Euskal historia hezkuntzan Goihenetxeren planteamenduan

2004 urtean *Euskal Curriculum. Kultur ibilbidea* izeneko liburua argitaratu zen. Bertan hezkuntzaren arlo desberdineko hainbat adituk jakintza gai desberdinen baitan euskal curriculum nola bidera daitezkeen proposatzen zuten. Historiari dagokion atala Manex Goihenetxeri zor zaio (1942-2004).

Goihenetxe, arestian aipatu denez, Baionako unibertsitateko historia irakaslea zen, euskal historia ikertzeagatik zein dibulgateagatik aski ezaguna. Baina horrez gain, beste hainbat arduren artean, ikastoletan irakasle gisa ere eskarmentu zabala zuen. Beraz pertsona aproposa zen bai bere maila akademikoagatik zein hezkuntza arloko bere esperientziagatik gisa honetako curriculum proposamen bat aurkezteko. Lastima heriotza ustekabeak eraman berri duela, oraindik aski gazte eta anitz eman zezakeenean. Bere oroitzapen eta obra utzi digu, euskal historialari guztiontzat eredu dena. Eskaini duen lana aztertzea eta hura lantzen jarraitzea dagokigu beraz, miresmenetik abiatuz baina berak nahiko zukeen zorrotasunari muzin egin gabe.

<sup>21</sup> Cf. 2003.01.16ko BOPV-EHAA, 10. zenb., 617 orr.

Luze aztertzea merezi duen proposamena da aipagai dudana. Ez dut, ordea, sakontasun osoan lantzeko betarik artikulu honetan, eta beraz hurbilketa xume bat egitera mugatuko naiz, aurrerago egin daitezkeen iruzkinetarako lagungarri izango delakoan.

Goihenetxeren proposamena “Gaiaren garrantziaz” izeneko sarrera batekin hasten da. Bertan, erantzunak eman bainoago historia irakasteak duen funtzioaz eta helburuaz gogoeta egiten du hainbat galdera pausatuz. Euskal historiaren inguruko gakoak, ene ustez, egoki aurkezten ditu hor. Euskal historia zer den eta ea historia nazionala gauza bera ote den aipatzen du batetik:

[...] ez naiz segur historia nazionalik behar dugunik edo hitzaren erabiltzearen beharrik dugunik. Diskurtso historikoa Euskal Herri osokoa izatea nahikoa da eta. Gainera galdera bat aztertu beharra dago: zerk bihurtzen duen nazionala izatea diskurtso historiko bat eta zer den historia nazionala. Munduan zehar nazioaren eraikuntzarako bidean tresna bat izan da herri bakoitzaren historia. Bide horretatik ibiltzeak bere arriskuak dauzka: borroka baten gune ideologikoa historia bihurtzea. Demostraziorako –“ad demonstrandum” – erabiliko den tresna soil bat ote da historia?

[...] Askotan tresna politiko bezala erabilia da historia, bereziki aparatu instituzionala ala politikoen aldetik. Historialarien funtzioa ez dabil bide horretatik. Funtzio nagusia soziala da, hau da gizartea ikertzea, hobeki ulertzeko, marko juridiko guztien gainetik, aparatu instituzional guztien gainetik, ahal bezain gaurkotuak eta zorrotzuak diren irizpide metodologikoak erabiliz.<sup>22</sup>

Goihenetxeren proposamenean, beraz, euskal historia ez da funtzio adoktrinatzailedun historia nazional gisa ulertzen, baizik soilki Euskal Herrian kokaturiko historia gisa. Hola bada, Goihenetxek esplizitatu egiten du euskal historiaren ematen dion funtzioa zein den: ez ikasleak abertzaletzea, baizik errealitatea ulertzeko bidea eskaintzea horretarako ahalik eta historia zientifikoena irakatsiz. Esan beharrik ez dago ikuspegi horrekin bat natorrela.

Subjektu historikoa definitzeko orduan, aldiz, lausoago ageri da. Euskal Herri osoa (zazpi probintziak bada) hartzen du markotzat, zatiketa instituzionalen gainetik. Ongi adierazten du egungo marko politikoak legitimatzeko helburua saihestuko duela. Aldiz pasarte honetan ez du argitzen zergatik hautatu duen Euskal Herria bere lurralde erreferentzia gisa. Implizituki uler daiteke euskaldunen eta euskararen eremua delako aukeratu dituela (gero egitarau proposamenean euskarari egindako erreferentziak ugariak inpresio hau baieztatzen dute). Interesgarria da, ordea, Euskal Herria subjektu historiko gisa eraikitzen dagoela eta subjektu hau Europakorekin nola lotzen duen ikustea:

Gure ikasleak Euskal Herrikoak bezainbat Europako herritarrak dira. Europako historia egitekoa da Euskal Herrikoak bezala. Biak hutsunez beteak, biek historiaren bideak hartu behar mitologian erori gabe, baina gure nortasuna itzalperatu gabe.

“Europako historia egitekoa da Euskal Herrikoak bezala” dio Goihenetxek, argi adieraziz euskal historia, Europakoa bezala (eta berdin frantsesa, suediarra zein indonesiarra), ez dela berezkoa, baizik historialarien lanarekin eraikitzen den konbentzio bat. Gainera euskal eta europar historien kasuak paralelismo handiak dituzte, bietako ezeinek ez baitu izan estatu propiorik, bai aldiz hainbat muga, barne zatiketa eta eskualdeen araberako dinamika desberdin, kontrajarri eta lotura gutxiak ugari. Hortaz bi hauen inguruan konbentzio bat eraikitzeak lana askoz berdeago dago aspalditik Estatu-nazio gisa finkatuak dauden herrialdeen kasuan baino. Edozein kasutan ez du Goihenetxek mitologiaren errazbidea hartu nahi euskal (edo europar) historia polit bat osatzeko baizik irizpide metodologiko zorrotzei jarraiki, hots, lan neketsu eta zintzoa eginez eraiki nahi du gure konbentzio historikoa. Aldi berean, iradokitzen du ez litzatekeela adituentzako diskurtso zientifiko soil batean geratu behar, baizik funtzio sozial zabalago bat izan beharko lukeela, gure nortasuna ez itzalperatzearekin lotutakoa. Beraz subjektu historikoaren abiapuntua egun dugun nortasunetik abiatzen da Goihenetxeren proposamenean, eta nortasun hori euskal nortasuna litzateke.

---

<sup>22</sup> Cf. Goihenetxe (2004: 550-551).

Izatez, euskal subjektu historikoa bere baitan zedarritu orde zuzenean subjektu historiko zabalago baten testuinguruan kokatzen du: “Europako historia orokor baten barruan sarturik aurkeztua da Euskal Herriko historia. Artikulazio eta marko politiko guztien gainetik, euskaldunak gutxienez Europako herritarrak baitira.” Hola bada, Goihenetxek, egun euskal jendartearen dauden lurralde identitate ugarien artean (espainiar, frantses, EAETar, nafar...), amankomunak eta elkarrekin ia osotara uztargarriak diren diren biak hautatu ditu bere subjektu historikoa finkatzeko: euskalduna eta europarra. Izan ere bere egitarauan ez da bakarrik euskal historia azaltzen baizik hau Europakoarekin batera emana da. Zentzu horretan Goihenetxeren proposamenari izenbururen bat jartzekotan “euskal historia” edo “Euskal Herriaren historia” baino hobeto “Europa eta Euskal Herriaren historia” ipini beharko litzaioke. Ikuspegi horrek hainbat abantaila eskaintzen ditu, ez soilik europar dimentsioak duen interesagatik, baizik baita historiaren euskal zatiari dagokionean ere. Hola euskal historia ez da antolatzen ez zatitzen Frantziari lotutako Ipar Euskal Herri eta Espainiari lotutako Hegoalde baten artean, baizik Pirinioen alde biei eragiten dien europar marko global baten arabera. Abiapuntu hori landuz posible da diskurtso historiko propio bat garatzea, ez dena bere baitan hertsiko, baina ere ez dena estatuen marko soilera mugatuko, baizik guztiei eragiten dien europar dimentsio zabalagora hedatuko dena. Nolanahi ere, nik aukeran nahiago izango nukeen euskal historia, europar erreferenteak kontuan hartuz ardaztu arren, aurrenik ez ematea Europako historia guztiarekin batera. Eta zentzu horretan euskal subjektu historikoa lehenik zehatzago definitzeko saioa eskertzeko izango zen (I.1 atalean proposatu den erako zerbaiten bere bertsioa), eta behin hori egindakoa planteatu ahalko litzateke Europakoa gehitzea. Bestela euskal subjektuaren definizio inplizituekin jokatzeko da, abiapuntu gisa hobeto zehaztea komeni direnak, nahiz gero praktikaren orduan ez izan ezinbestekoa haiek orpo orpo segitzea (azken finean euskal historian, adibidez 1598an, zer gertatu zen kontatzeko ez da nahitaezkoa justu-justu jakitea zeintzuk diren zure subjektuaren muga argiro zedarrituak, ziurrenik Euskal Herritik Parisko gertakarietara jauzi egin beharko baituzu, eta handik Poloniara eta ondoren Nafarroa Beherera, etab. Baina horrek ez du kentzen abiapuntuan behintzat subjektua ondo definituta edukitzeko komenientzia).

Edozein kasutan, askozaz interesgarriagoa da Goihenetxek planteatzen duen “Europa eta Euskal Herriaren historia” ezen ez EAeko hezkuntza sisteman, adibidez Batxilergoko bigarren mailan, irakasten den “Espainia eta Euskal Herriko historia” ikasgaia baino: Goihenetxek proposatzen duen ereduak euskal historia ikuspegi propioz lantzeko aukera handiagoak ematen ditu, espainiar historiografiarekiko murrizketak gaintzen laguntzen du, baina ez da bere baitan ixten. Alta, egungo hezkuntza planen baitan ez dut erraza ikusten halako ikasgai bat txertatzea (ez EAEn eta are gutxiago gainerako euskal lurraldeetan). Izatekotan DBHko gizarte ikasgaiaren sar liteke, baina adin horretan ez dago agian nahikoa sakontzeko astirik. Batxilergoko lehen mailako *Historia Garaikide* ikasgaiaren ere posible litzateke halakorik egitea, nahiz mundu osoko historia lantzen delarik ez den orekatua bertan euskal atal handi bat sartzea (ikasgaiaren helburua ez baita munduko eta Euskal Herriko historia erdibana kontatzea, baizik izatekotan munduko historia azaltzea, eta tartean, adibide konkretu bezala, euskal kasuren bat edo beste aipatzea). Kurtso berean dagoen hautazko Euskal Herriaren historia bai molda liteke hein batez Goihenetxeren proposamenekin, baina nik ez nioke hark proposatzen duen Europako historia orokorraren atala erantsiko, ikasgaia gehiegi ez zamatzeko. Azken finean, ene ustez, euskal historiak, merezi du ikasgai espezifiko bat.

Batxilergoko bigarren kurtsoko *Historia*, behar bezala eraldatuz, agian Goihenetxeren euskal eta europar eredura egokitu liteke. Legez uste dut posible litzatekeela. Horretarako Espainiako Hezkuntza ministerioak ezarri dituen oinarriko espainiar edukiak europar atalean sartu beharko lirateke, eta EAERI edukien %45a finkatzeko aitortzen zaion eskumena gainerako europar historia osatzeko eta euskal historia gehitzeko erabil liteke. Jakina horrek historialari trebeen moldapen lana eskatuko luke, eta halaber %45eko kuota errespetatu ahal izateko, euskal administrazioak ezarriko lukeenez europar atalaren zati handi bat, euskal atalaren portzentaia urrituz egin beharko litzateke hori (europar edukien faboretan). Suposatuz, beti ere, Espainiako Hezkuntza ministerioak ez lukeela EAeko hezkuntza saila salatuko espainiar edukiak europar atal batean sartzeagatik (eta *Espainia eta Euskal Herriko historia* ikasgaia zena *Europa eta Euskal Herriko historia* bihurtzeagatik).

Laburbilduz, ikasgai konkretuetan moldapenak akaso egin litezke, baina ideala Goihenetxek proposamena ikasgai konkretu batean aplikatzea barik bere filosofia abiapuntuz hartu eta hezkuntza planak osotara eraberritzea litzateke, Madrildik ezartzen diren espainiar kuota derrigor bete beharrik gabe. Hola, DBHn munduko, Europako eta Euskal Herriko historia tarteka liteke; Batxilergoko lehen mailan munduko historia garaikidea batetik eta Euskal Herrikoa bestetik banako ikasgaietan eman; eta batxilergoko azken kurtsoan, ostera ere, euskal eta europar historia elkartuta azaldu. Aldaketa ofizial horiek etorri artean irakasleek eurek badaukate hein batez euskal historia egungo planetan txertatzen joateko aukera, ez agian egitarau osoak aldatuz baina bai

parte batzuetan. Goihenetxek proposatzen duen programaren baitan, hainbat material historiko konkretu aurkezten da, ariketa eta gai konkretuak lantzeko aukera eskaintzen dutenak. Nolanahi ere, zaila da egitarau ofizialak gauza bat dioenean eta testu-liburuek eredu horri segitzen diotenean irakasle batek konpondu ahal izatea orokorra den arazo bat.

#### **IV. Goihenetxek proposaturiko prozedura, kontzeptu eta jarrerak**

Hasteko esana denez, euskal historiak gain Europako historia orokorra lantzeko bideak ere seinaltzen ditu Goihenetxeren proposamenak. Ez naiz horietan askorik sartuko, ez bada euskal edukiei eragiten dieten heinean.

Atalketari dagokionez bloke hauek proposatzen dira: “1. Antzinatea eta Erromatarkuntza Europan eta Euskal Herrian”, “2. Europa eta Euskal Herria Erdi Aroan”, “3. Europa eta Euskal Herria Aro Modernoan eta Garaikidean”, “4. Aro Garaikidea (1789-1914)” eta “5. Europa eta Euskal Herria gaur (1980ko hamarkada arte)”. Hauen baitan hainbat azpiatal bereizten ditu. Nolanahi ere, kontzeptuzko egitarau bezain garrantzitsua edo gehiago, berau orientatzeko prozedurei ematen dien garrantzia da:

Hemen aurkeztua den edukia dokumentuetan oinarritzen da, ahal den neurrian. [...] Gai bakoitzaren erdian, kurtso bakoitzaren erdian, dokumentuak du zor zaion lekua gorde behar, jakinez, gero, dokumentuaren azterketatik ateratzen den diskurtso historikoa, norberaren nortasunaz, norberaren kultura irizpideez eraginik izan daitekeela eta dela, baina beti egiari zor zaion bidetik.<sup>23</sup>

Hortaz, historia irakasteko orduan, hezkuntza metodo gisa, prozedurekin hastea proposatzen du Goihenetxek, dokumentuak aztertuz eta ikasleei erakutsiz kontakizun historikoa horietatik ateratzen dela (eta historialarien balio eta ikuspegiak baldintzatzen dutela eurek idatzitako historia). Proposamen ausarta da prozedurei ez baitie ematen kontzeptuen osagarri edo ilustrazio funtzio soila, baizik kontzeptu beraien abiapuntu izate zeregina. Gainera zailtasuna areagotu egiten da kontuan izanik prozedura horiei (hau da dokumentu gordinei) aurre egin behar dietenak ikasle aski gazteak direla, ez unibertsitarioak. Ezin uka, ordea, ikasleekiko konfiantza agertzen dela hola eta haien lan zuzena sustatzen dela. Iturri zuzenen azterketa ondo bideratzeko, bestalde, irakasleak ere prestaketa ona izan behar du, ikasleen gaitasunei egokituriko ariketak egiteko, eta haien irakurketa eta interpretazio lana egoki orientatzeko. Ez dakit gure hezkuntza horretarako aski prestaturik dagoen, irakasle guztiek ez baitute Goihenetxek zuen esperientzia iturri zuzenen analisisian. Izatez hezkuntza zentro gehienetan ikasleak ebaluatzeko orduan bertan, kontzeptuei, hots eduki teorikoei balio handiagoa ematen zaie prozedurei baino. Hortaz ez dakit noraino den posible, proposamen gisa ideala izan daitekeela ukatu gabe, prozeduretatik abiatuz bideratzea historiaren irakaskuntza.

Edozein kasutan, prozedurei lehentasun osoa eman zein kontzeptuen osagarri gisa erabiltzeko izanik ere, Goihenetxek klasean lantzeko dokumentu ugari aipatzen ditu bere egitarauan: literatur testuak, artikulua, testu juridikoak, margolanak, mapak, grafikoak... Egin daitezkeen txangoak, bisitatu daitezkeen museoak zein monumentuak eta gisako jarduera osagarrien inguruko aukerak ere ez dira falta. Beraz Europako zein Euskal Herriko gai ugari aztertzeko prozedura konkretuen erreferentzia aurki daiteke proposamen honetan. Gainera, eta gorago aipatu dudan kezkarri erantzunez bezala, jatorriz euskaraz sortuak diren hainbat dokumentu ere aipatzen ditu (bertsoak...). Pena da Goihenetxek ez idatzi izana gida osoago bat prozedurak modu zehatzagoan garatuz, nabari baita oso informazio zabala zuela halako gauzen inguruan. Bere artikuluko erreferentzia eta aipu laburrekin konformatu beharko dugu, eta ez da gutxi.

Kontzeptuei dagokionez, Europakoaz gain, Euskal Herri osoko (Iparralde eta Hegoalde) historia laburbiltzeko saioa ageri da, lurralde arteko oreka nahiko ondo zainduz. Ez dut orain eduki horien analisi azalekoa baino egingo, zertzelada batzuk ematera mugatuz. Hasteko aipa dezaket euskal periodizazio autonomo bat antzeman daitekeela, Iparralde / Hegoalde bikoiztasuna saihestuz eta Frantzia zein Espainiaren parean haien neurriko Europako beste herrialde edo eskualde aipagarrien gaiak jasoz. Zentzu horretan ikusmira zabala antzematen zaio proposamenari, “norbere naziora” (dela hau euskal, espainiar zein frantses) mugatu nahi duten historia ereduak aisa gaudituz. Eredu honi gabeziaren bat aipatzekotan, egitarau zabalegia finkatzearena da, kurtso batean nekez landu baitaitezke hainbeste gai. Jakina, ez dago zertan ulertu egitarau hau kurtso bakarrean

---

<sup>23</sup> Cf. Goihenetxe (2004: 551).

ematekoa denik. Agian (berak esplizitatu ez arren) Goihenetxek zenbait ikasturtetan banatzeko helburuaz egin zuen proposamena. Nolanahi ere, une batzuetan zail da euskal historiaren haria segitzea kontinente osoko historiaren zurrumbilo zabalean. Zentzu horretan xehetasun gutxikoa begitantzen da batzutan euskal historia. Edozein kasutan, hezkuntza arloan diharduten profesionalak, bai egitarau berriak finkatu beharko lituzketen administrazioako adituek, zein eskolan ari diren irakasleek, gogoetarako egitarau proposamen bat dute hemen.

Jarreraren inguruan Goihenetxek aipatzen duena ere aski interesgarria da. Historiak irakatsi beharko lituzkeen balioez orokorki hitz egin ordez, gai historiko bakoitzaren alboan aipatzen ditu, esaldi xumeen bidez, gai horien haritik jorratu litezkeen balioak. Gainera ez ditu zentzu bakarreko irakaspen edo moral lezio gisa planteatzen, baizik gogoeta gai gisa: “Tolerantzia/intolerantzia”, “Lan munduari buruz gogoetak, behaketak”, “Eskolaren funtzioa”, “Gogoeta bat Europa-mundu zibilizazio kontzeptuaz”... Beraz, jarrera-balio atala ez dago ikasleei ideia jakinak txertatzera bideratua, baizik euren pentsatzeko gaitasuna lantzeraz, beren ideien oinarriak bilatzen bultzatzeraz eta oro har zentzu kritikoa garatzeraz.

Laburbilduz, Goihenetxeren proposamena, definitiboa izan gabe (asmorik ere ez zuen) euskal curriculumak finkatuz joateko abiapuntu eta gogoetarako oinarri sendo gisa ageri da. Zentzu horretan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bereziki, *Euskal curriculumaren* liburu honen argitalpenean parte hartu izanik, presentean izan beharko lituzke historia arloari dagokiona moduko ekarpen hauek.

## V. Ondorioak

Artikulu honetan euskal curriculumak historia arloan zer izan daitekeen planteatu da eta ondoren helburu hori nola gauzatu den aztertu da. Euskal historiaren inguruan esandakoa (I eta II atalak) honako puntuetan laburbil daiteke:

### **Euskal historia egitea posiblea eta zilegia da**

1. Historiak ikertzen dituen subjektuak oro gaur egunetik definitzen dira (berdin euskal historia, espainiar historia, holandar historia, langile mugimenduaren historia, zein neolitizazioaren historia). Beraz, *a priori*, ez dago historia berezko edo naturalik, ezta historia faltsu edo artifizialik. Historialariek ikertzen dituzten subjektu guztiak konbentzionalak dira, gaur egunetik definituak, eta konbentzio horiek atzera proiektatuz arakutzen da iragana.
2. Subjektuak adina ikuspegi historiko egon arren historiaren ikuspegi horiek baliozkoak izateko oinarritzeko arau zientifiko batzuk bete behar dituzte (eta honek berdin balio du euskal historiarako zein frantses, aleman, txinatar edo beste edozeinentzat).
3. *Euskal* subjektua hainbat modutara defini daiteke. Artikulu honetan ikuspegi propio erabiliz definitzea proposatzen da, horretarako “euskal” hitzak gure hizkuntzan duen esanahi konbentzionala errespetatuz. Kasu horretan euskal historia, *euskarari*, *euskaldunei* eta *Euskal Herriari* dagokion historia litzateke (ez gehiago, ez gutxiago). Ohar bedi Euskal Herria izena, Euskaltzaindiak berretsi duenez, zazpi probintzien osotasunari dagokiola. Bestalde presente izan behar da euskal subjektua honela (edo beste modu batera) definituagatik, beti ere konbentzionala dela, ez esentziala.
4. Euskal historia eskolatan irakasteko arrazoi bat egon behar du, eta arrazoi horretaz kontziente izan eta konplexurik gabe adieraztea da egokiena. Euskal identitatea gure jendartearen dagoen identitateetako bat izanik (ez bakarria baina bai aski orokorra) berau aintzat hartzeko modukoa kontsidera liteke, eta horrek justifikatuko luke euskal historia irakastea. Beraz euskara guztiok errespetatu beharreko ondare gisa hartzen den hein berean onartu beharko litzateke euskararen ikuspegitik definituriko euskal historia irakastea. Premisa horiekin posible da euskal historia erriguroso bat lantzea, aitortuz ideologiaren gainetik dauden (edo egon beharko luketen) euskal balioen errespetuan funtsatzen dela. Euskal historiak, bada, edozein historia gairi dagokion balio kritikoa bultzatzeaz gain, euskal balio espezifikoa ere sustatuko lituzke, konkretuki euskararen, euskaldunen eta Euskal Herriaren ezagutza historikoan sakontzea eta haiekiko gertutasuna bultzatzea. Hau ez da ulertu behar aberri proiektu jakinik sustatze



gisa: hemen soilik planteatzen da hizkuntzan oinarrituriko subjektu historiko konbentzional bat baloratzea, helburu politikoetan sartu gabe (ez independentzia, ez autonomia, ezta Euskal Herria nazio den ala ez justifikatu nahi da historiaren bidez).

5. Teorietatik harago, euskal historiaren lan kanonikoak behar dira, eta horiek gabe nekez egin daitezke eskoletarako bertsoak, nahiz hurbilpen batzuk badauden. Halaber eskolan euskal historia gaiak lantzeko materialak (prozeduretarako) falta dira, euskaraz sortutako iturri historikoek (bertsoak, idazle klasikoak...) bereziki profitatu beharrekoak izanik.

Behin oinarri teorikoak ezarrita, orain arte euskal historia curriculuma, bereziki EAEn, zertan den aztertu da (III. atala), ondorio hauek ateraz:

### **Egun ez dago bermaturik euskal historiaren irakaskuntza duina**

6. EAEko hezkuntza sisteman euskal dimentsioari Nafarroan edo Iparraldean baino garrantzia handiagoa ematen zaio, baina hala ere euskal historia ez da ikasgai espezifiko eta derrigorrezko gisa ezein kurtsotan irakasten (nahiz zeharka hainbat kurtsotan azaldu):
7. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH: 12tik 16 urtera arteko neska-mutilei dagokiona) *Gizarte* izeneko ikasgaiaren baitan (astean hiru ordu lau kurtsotan zehar) munduko, Espainiako eta Euskal Herriko geografia eta historia irakasten da, baina elkarrekin nahasian. Euskal dimentsioa multzo zabalago horien artean galdu ohi da, sarritan adabaki soilak izanik, eta 3. puntu proposaturiko euskal historiaren minimo konbentzionalak gutxitan betetzen dira (testuliburu askotan soilik EAEko historia agertzen da, edo onenean Hego Euskal Herrikoa, euskarari arreta gutxi jarritz, etab.)
8. Batxilergoko 1. kurtsotan (16-17 urteko gazteak), humanitate ibilbidea hautatu duten ikasle guztientzat *Mundu Garaikidearen Historia* dago derrigor, baina izenak dioten bezala nazioarteko historia irakasten da bertan.
9. Batxilergoko 1. kurtsotan (16-17 urteko gazteak), nahi duten ikasleentzat *Euskal Herriaren Historia* izeneko hautazko ikasgaia dago, nahiz ez den zentro guztietan eskaintzen. Ikasgai honen egitaraua, nahiko egokia bada ere, nagusiki Hego Euskal Herrian zentratzen da, eta euskarari ez dio beti aski arretarik eskaintzen.
10. Batxilergoko 2. kurtsotan (17-18 urteko gazteak), ikasle guztiek derrigor *Historia* izeneko ikasgaia jaso behar dute, funtsean Espainiaren historia dena. EAEko egitarauan Espainiako historiaren alboan euskal historia ere txertatu da, baina nagusiki Hego Euskal Herriari dagokio eta Espainiako ereduak markaturiko egiturara moldatuta dago, ikuspegi propioa garatzeko aukerarik gabe.
11. Unibertsitatean sartzeko hautaprotetan, iruzkindu beharreko testu historikoen artean, sekula ez da jatorriz euskaraz idatzitako agiririk jartzen (eta beraz Batxilergoko 2. kurtsoko testuliburuak ere ez ohi dute halakorik eskaintzen): beti gaztelaniazko testuak erabiltzen dira, euskara itzulpen soilak izanik.

Errealitatearen diagnosi honen ostean, curriculumaren euskal dimentsioa bultzatzeko idatzi den *Euskal curriculum*: *Kultur ibilbidea* liburuan Manex Goihenetxe historialariak egindako proposamena aztertu da (IV. atala). Bere proposamena positiboki baloratzen da oro har, eta bertatik abiatuz hezkuntza sisteman zuzenki aplikatzeko ondorio batzuk deduzitu dira, ez Goihenetxek hala adieraziak, baina bere irakurketatik atera direnak:

### **Euskal historiaren irakaskuntza birpentsatu eta berregin beharra dago**

12. Euskal historia, europar historia bezala, eginkizun dago. Estatuak ezarritako historia ereduetatik abiatu eta haren aldamenean euskal adabakiak jarritz ez da ikuspegi propiorik sortzen. Arazoa ez da irakaskuntzako portzentaiena (ofizialki %55 Espainiari dagokio, %45 autonomia erkidegoei), abiapuntu kontua baizik: oinarria, kopuruz minimoa izanik ere (eta ez da hala), Estatuak ezartzen badute, euskal atala (handia izan arren) eredu horretara moldatu beharko da, ikuspegi propioa sortzeko aukera galduz.

13. Euskal historia marko zabalago batean kokatzekotan Europako testuinguruan ematea litzateke egokiena, ez espainiar edo frantses historien baitan: europar markoak Ipar/Hego Euskal Herri zatiketa gainditzen laguntzen du, eta historiografia estatalekiko murrizketatik aldentzen gaitu ikusmira zabalagoan kokatuz.
14. Euskal Herriko, Frantziako, Espainiako, Europako eta Munduko historiak izugarri zabalak izanik, horiek kurtsoka nola banatu, elkarrekin zelan uztartu edo aparte irakatsi behar ote diren arretaz aztertu beharko litzateke. Prozeduretan landu beharreko materiala hautatzea, eskuragarri jartzea, eta ikasleekin lantzeko gisan prestatzea ere egiteke dago. Balioei dagokionez historiaren funtzioa ez da horiek dogmatikoki transmititzea (balio horiek positiboak izanik ere), baizik, izatekotan ere, gai batzuetatik abiatuz ideia jakinen inguruan gogoeta egitea, beti ere kritikoki.

Finean artikulua honek euskal curriculum historia arloan garatzearen inguruko debategan sakondu nahi izan du, abiapuntuak, historiaren funtzioak, transmititu beharreko euskal balioak, eta erabili beharreko bitarteko eta moduez ohar batzuk eginez.

### Bibliografia

- Agirreazkuenaga, Joseba (zuz.) (1995): *Gran Atlas Histórico de Euskal Herria*, Lur, Bilbo.
- (zuz.) (1997): *Euskal Herriko atlas historikoa*, Lur Entziklopedia Tematikoa, Bilbo.
- (2002): "Historian barrena: historiografiaren arazoak", in J. Kintana – K. Artetxe (arg.), *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian*, UEU, Bilbo, 155-168.
- Álvarez Junco, José (2001): *Mater dolorosa. La idea de España en el siglo XIX*, Taurus, Madril.
- Bermejo, José Carlos - López Barja de Quiroga, Pedro (2000): "Sobre la Historia y su Academia", *El País*, 2000.07.22.
- Bilbao, Gidor (1994): "XII. mendeko Euskal Herria Santiago bidean: Liber Sancti Iacobi V, 7", *Uztaro*, 10, 61-84.
- Goihenetxe, Manex (1998-2003): *Historie générale du Pays Basque*, Elkarlanean, Donostia, 4 tomo [5.a bidean].
- (1999tik): *Historia general del País Vasco*, Ttartalo, Donostia.
- (2004): "Historia", X. Garagorri (zuz.) *Euskal curriculum: Kultur ibilbidea. Adituen ekarpena*, Ikastolen Elkartea – Eusko Jaurlaritza, Donostia, 549-563.
- Huici, Vicente – Madariaga, Juan (bil.) (1989-1990): *Euskal Herriaren Historiarako Materiale eta Agiriak*, Kriselu – UNED, Donostia, 5 tomo.
- Kintana, Jurgi (2004): "Euskal curriculum historia arloan", *Berría*, 2004.06.06.
- Larrañaga, Koldo (1992): *Euskal Herria antzinate berantiarrean eta lehen ertaroan : materiale eta agiriak*, EHU, Leioa.
- Larrea, Juan José (1998): *La Navarre du IVe au XIIIe siècle: peuplement et société*, De Boeck Université, Paris.
- López Atxurra, Rafael (1987): *Historia, zientzia sozialak eta hezkuntza*, EHU, Bilbo.
- Mees, Ludger (2000): "Historia y política", *El País*, 2000.07.06.
- Merchan, F. J. (1994): "La didáctica de la historia en Europa: líneas de trabajo sobre el problema de la selección y organización de contenidos", *Investigación en la Escuela*, 24 zenb., 23-34.
- Pérez Garzón, Juan Sisinio et al. (2000): *La gestión de la memoria. La historia de España al servicio del poder*, Crítica, Bartzelona.
- Rivera, Antonio (zuz.) (1998): *Euskal Herriaren historia*, Lur Entziklopedia Tematikoa, Bilbo.
- Segura, Antoni (2001): *Els llibres d'història, l'ensenyament de la història i altres històries*, Fundació Jaume Bofill, Bartzelona.

Zavala, Antonio (1989): “La guerra napoleónica de España y los bersolaris”, *Congreso de literatura (hacia la literatura vasca). II Euskal Mundu-Biltzarra=II Congreso Mundial Vasco*, Castalia, Madril.

ZZEE (1998): *Historia testu bidez*, EHU, Gasteiz.